



Bizkaiko Bertsolari Txapelketa Astrabudura helduko da zapatu honetan, apirilaren 23an ▶18



Libre erabakitzeko eskubidearen defentsan, atzo eta gaur erreportajea helarazi digu Iñaki Frierak ▶22-23

hiruka

Uribe Kostako astekaria



56. zenbakia

2016ko
apirilaren 21etik
apirilaren 27ra arte

«Lotura handia dauka MacGowanek gugaz»

Shane MacGowanen gibela ikuskizuna dakarkigute Unai Elorriagak eta Gibelurdinek. ▶16



HERRIZ HERRI URIBE KOSTA

Literatura nongura

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarte-ko Eguna ospatzen da leku askotan. Hori dela-eta, Uribe Kostako herri ugari-rik literaturari lotutako hainbat azoka, ekimen zein jarduera hartuko dituzte egunotan, berbarako Barrikak, Beran-gok eta Getxok. ▶4, 8, 9

HERRIZ HERRI SOPELA

Berriketan, Sopelan

La Pulga flamenko-dantzariak txalaparta-doinuak edukiko ditu lagun, apirilaren 23an, Kurtzion eskainiko duen emanaldian. ▶7

Aurrekontuak aurkeztu ditu Getxoko gobernu-taldeak, EH Bildugaz adostuta; hil amaieran onartuko dituzte. ▶2

Berbodromoa egingo dute apirilaren 27an, Leioako Sakoneta kiroldegian. Aurretik izena eman beharra dago. ▶6

Putxera eta Euskal Jai Eguna ospatuko dute Plentzian, apirilaren 23an, zapatuan, egun osoko egitarauagaz. ▶9



Zu eta biok, hirukan, bultzada bera!

hiruka zaitez! info+: 21. orrialdean



Zulotik

ARMANDO
LLAMOSAS RUBIO
Kultura ondarearen teknikaria

Kultura alternatiboa ere, beharra

Esparru tradizional batean bizi gara. Abangoardia ez gara, ez Bizkaian, ez Euskal Herrian, ez Espainian. Historiatik, atzerapenagatik, tradizionalak gara. Hala ere, kanpoko ekimen alternatiboren bat ikusten dugunean, ondo baloratzen dugu.

Egun hauetan, *Getxoko Txorimalo gaztetxeak* 10. urteurrena ospatu du. Nahi eta nahi ez, bertako kultura alternatiboa gaztetxeetan, eta haren zirkuituetan, egon da arlo askotan. Jakina, beste leku batzuetan ere sortzen da, ofizialki bultzatuta: laguntza ekonomikoa, azpiegiturak... horretarako dago administrazioa. Ona eta ezinbestekoa.

Horrela izanda ere, kultura leku askotatik sor, esperimentera eta zabal daiteke. Horregatik, kultuak diren lekuek: Frantzia, Alemania, Britainia Handia, leku alternatiboak bizitzen uzten dute; are eta gehiago, askotan, gida turistikoetan eskaintzen dizkigute. Askotan kale egin arren, noizbehinka zerbaite berezia sortzen da, eta beti tokiko kultura aberasten dute. Beti.

Zoritarrez, bertako gizartea, politizatuena dena, etsaiez beteta dago. *Guk* kontrolatzen ez dugunez, etsai bihurtzen dugu; beraz, itotzen saiatzen gara. *Kukutza*, sortzeko zentro garrantzitsua zena, orain orube utzita auzo utzita batean besterik ez da; kulturari dagokionez behintzat, basamortu kulturala.

Bertan *Kukutza* ez dugu, zoritarrez gure herriak txikiak dira, eta gure udalek etsaierik eta arazorik besterik ez dute ikusten. Ze ondo legoke gaztetxe horiek bere ekitaldiekin herria beteko balute! Ze ondo legoke udalek bultzatuko (edo utziko) balute zentro horietako sorkuntza eta programazioa, noizbehinka arazoak sortu arren! Azken finean, tabernoekin ere arazoak dituzte, eta, hala eta guztiz ere, etsaiek ez omen dira. ◀

Getxo

Ia 104 milioi euroko aurrekontua aurkeztuta

EAJ, PSE eta EH Bilduren arteko negoziaketen ostean osatu dituzte aurtengo aurrekontuak.

Hilaren 27ko osoko bilkuran onartuko diren 2016ko aurrekontuak aurkeztu ditu Gobernu-taldeak (EAJ-PSE). Guztira, Udalaren zein bere erakunde autonomoen (Getxo Kirolak, Kultur Etxea, Udal Egoitza eta Musika Eskola) 2016rako aurrekontu bateratuak 94,3 milioi euro izango ditu, hau da, aurreko ekitaldian baino 3,5 milioi gutxiago. Hala ere, aurtengo ekitaldirako jasotako gastuak 9,5 milioi euro gehiago izango ditu, diruzaintzako gerakinetik eratorritako finantzaketagaz. Hala, behin betiko kopurua 103,8 milioi eurokoa izango da. Aurrekontu horiek apiril honetako osoko bilkuran onartuko dira, EH Bilduk bozketan abstentziora joko duela adostu ondoren.

Gobernu-taldeak azpimarratu du EAJ, PSE-EE eta EH Bilduk adostutako akordioa hiritar guztien interesaren aldekoa dela. Era berean, udal arduradunek diotenez, proposatutako aurrekontua «orekatua» da, «gastuak ez ezik diru-sarrerak ere aintzat hartzen dituen, aurrekontu jasagarriak lortze aldera». EH Bilduk abstentzioagaz emango die bidea aurrekontuei, EAJ eta PSEgiz izandako negoziaketen ondoren lortutako akordioan «ezkerre-rantz urratsak jasotzen direlako». Oostera, Getxoko PP «ez da fio» hiru alderdi horien akordioagaz, «letra txiki gehiegi ezkutatzen duelako»; eta GUK alderdikoek ere EAJ, PSE eta EH Bilduren ar-



info+: www.hiruka.eus. © GETXOKO UDALA

teko akordioa salatu dute, eta «betiko bidea» hartu dutela iragarri dute.

Akordioaren ezaugarriak

Aurrekontuetan hau adostu dute: etxebizitza-alorrean, gazteen alokairu eta emantzipaziorako diru-laguntzak (250.000 euro) jasotzen dira, OHZ ordaintzeko diru-laguntzak (150.000 euro), etxebizitza hutsen errolda egitea, eta Zorua Udal Ondarera miloi bat euro gehiago bideratzea. Berdintasun alorrean, 50.000 euroko partida aurreikusten da Emakumeen Etxearen inguruko gogoeta, prozesu parte-hartzaile baten bidez abiatzeko. Horrez gainera, energia-pobrezia arintzeko laguntzak aterako dira. Auzoentzako proiektuen artean, 200.000 euro bideratuko dituzte Portu Zaharrerako igogailuaren proiektua aztertzeko; beste 200.000 euro Portu Zaharreko ema-

kumeen txokoaren eraikina zaharberritzeko eta erabiltzeko proiektuaren azterketarako; eta Bentaren erabilera eta berritzea zehazteko parte-hartze prozesua abiatzea. Hiritarren parte-hartzeari dagokionez, 232.000 euro bideratuko dituzte Auzoz Auzo programara, 270.000 euro auzokideek aukera izan dezaten proiektu edo arlo batzuen artean erabakitzeko, eta 100.000 euro 2017ko aurrekontu parte-hartzaileak prestatzeko. Nazioarteko lankidetzatarako aurrekontuen %0,7ra helduko da, eta murrizketak izan zituzten diru-laguntza guztiak linealki legealdi amaierara bitartean berreskuratzea onartu dute, udal diru-bilketaren bilakaerari lotuta (%25eko igoera, sasoi bateko %20ko murrizketa konpentsatzeko. 2016an %10 igotzea). Azkenik, akordioa betetzen dela bermatzeko jarraipen-batzorde bat osatu da. ◀

Udal tasen eta zergen zati bat % 0,65 igotzeko proposamena

Gobernu-taldeak udal tasa eta zergen zati bat %0,65 igotzea proposatu du, «udal zerbitzu guztietan epe luzerako iraunkortasuna bermatzeko, inolako murrizketarik gabe, eta getxotarren bizi-kalitatea mantendu eta hobetzeko beharrezkoak diren inbertsioak egiteko asmoz». Inazio Uriarte Ogasun zinegotziak akordura ekarri duenez, tasak eta zergak, oro har, «izoztuta» egon dira 2007tik. Hala ere,

aldaketa batzuk egon direla onartu dute; berbarako, beheranzkoa, zabortasan eta goranzkoa, 2012an, gama altuko ibilgailuen zirkulazioko zergan.

Zehaztu duenez, % 0,65eko eguneraketa horretan, zenbait tasa (estolda, zabor edo bide publikoa okupatzeko tasak, adibidez) eta zerga (trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga) daude; Ondasun Higiezin Zerga ez, ordea. ◀

info+: www.hiruka.eus

Udalak @GetxoUdala erabiltzaile-izen berria du Twitterren

Getxoko Udalak Twitterren erabiltzailearen izena aldatu du; hala, @getxoweb izatetik @GetxoUdala izatera pasatu da. Arduradunen arabera, «Udalaren Komunikazio eta Gardentasunaren politikan beste aurrerapauso bat da. Horrekin, udal kudeaketaren inguruan informazio zehatza eman nahi dugu, eta herritarrek administrazioarekin duten harremana hobetu, oraingo honetan, sare sozialen bidez». ◀



TXORIERRI POLITEKNIKA IKASTEGIA, TROKELÉN DISEINU ETA FABRIKAZIOAREN ESPEZIALIZAZIO PROFESIONALAREN ZENTROA

Lanbide Heziketaren antolaketa berriaren bitartez, garrantzia hartzen dute **Espezializazio Ikastaroek**; horiek zuzenduta daude Lanbide Heziketako titulu-dunei eta konpetentzia profesionalak etengabeko garapenean dagoen merkatura egokitu gura dituztenei.

Txorierri Politeknika ikastegiak ikastaro horietako batzuk eskaintzen ditu, berbako **Trokelen Diseinu eta Fabrikazioa metalezko xaflaren atala lortzeko** lanbide-heziketa; denera, 800 orduko iraupena duena.

Uneotan, ezaugarri horiek batzen dituen esperientzia pilotua garatzen dabiltza Gestamp enpresarentzat, Lanbide Heziketaren Kontseilariordetza-ren baimenagaz. Izan ere, Lanbide Heziketa egitas-

mo dual bat sortu dute, txandakatze-sistema erabiliz, guztira hiru urte iraungo duena.

Hala, bigarren urtetik aurrera, matrikulatuta dauden heziketa-zikloaren moduluak eta espezializazio ikastaroan gauzatutako ikaste-esparruak osatu ahal izango dituzte ikasleek; hiru urteak pasata, Lanbide Heziketako titulua eta espezializazio ikastaroaren agiri eskuratuz, azkenik.

Orain arteko esperientzia, guztiz ona izan denez, Gestamp enpresagaz berriro jarduteaz gainera, Txorierri Politeknika ikastegiak ikasturte berri bat antolatuko du AICgaz (Automotive Intelligence Center) batera, ACICAE automobilismo kluster enpresek ere parte har dezaten.



Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net



Ateak irekitzeko egunak
Maiatzaren 3an eta 16an, 18:30etik aurrera

BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produkzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari

Etorri gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak ezagutzera

- Automatizazioa eta Robotika industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari


Getxo

Liburuak kalera!

Apirilaren 21etik 24ra bitartean, Algortako Telletxe plazan egongo da Liburu Azoka.

Liburuen mundua kaleratu gura du aurten ere Getxoko Liburu Azokak. Aurtengoa 19. ekitaldia izango da, eta zenbait egunez, udal-liburutegien ekimenez, bisitariak azken literatura nobedadeak eskuratu ahal izango dituzte azokako zortzi etxoletan. Aurten, Liburuaren Azokaren ardatz nagusia gastronomia izango da; hala, horri lotutako hainbat ekintza egingo dituzte. Horrez gainera, aurrekoetan legez, azokan egindako erosketa guztiek % 10eko deskontua izango dute.

Azoka hilaren 21etik 24ra egongo da zabalik, honako ordutegietan: egunean, 10:00etatik 14:00etara



Zortzi etxola egongo dira Telletxe plazan.

eta 17:00etatik 20:00etara; barikuan, 11:00etatik 14:00etara; zapatuan, 10:00etatik 14:30era, eta 17:00etatik 21:00etara; eta domekan, 11:00etatik 14:30era. Erakusketa bat, jolasak, jolas erraldoiak, eskulanetarako tailerak eta ludoteka ere egongo dira es-

kaintzen artean. Horiei gehitu behar zaizkie, besteak beste, ikasle getxoartzek egingo duten jendaurreko irakurketa, egileen sinadura-txandak, berbaldi literarioa, liburu-aurrezpenak eta ipuin-kontaketa bat. ◀

info+: www.getxo.eus

Gazteria Arloaren inklusio-zerbitzu berria, martxan

Udalak Gazteria Arloaren inklusio-zerbitzu berria jarri du martxan. Horren helburu nagusia da urritasunen bat (aniztasun funtzionala) duten udalerriko haur, nerabe zein gazteei normaltasunez parte hartzeko aukera eskaintzea Gazteria Arloak antolatzen dituen jardueretan, besteak beste. Horretarako, behar dituzten laguntzak izango dituzte; kasu bakoitzean zein laguntza behar duten aztertuko da. Zerbitzua aniztasun funtzionala dutenei zein haien familiei zuzenduko zaie, inklusioagaz lotutako informazio eta orientazioa eskaintzeko, edo haien beharren edo eskaeren inguruko informazioa batzeko. Horrenbestez, jardueren eskaera eta eskaintza elkarri hobeto egokitzea lortuko da. Jendaurreko zerbitzua hurrengo ordutegian emango da: eguen eta barikuetan 09:30etik 13:00etara, Gaztelekuan (Urgul kalea z/g, 3. solairua). ◀

Kirol eta kultur jarduerak bultzatuz

Joan den zapatuan, hilak 16, esku-pilota ikastaro batez eman zioten hasiera GetxoAktibatu! ekimenaren laugarren ekitaldiari. Kirol, kultura eta aisia osasungarriarako jardueren programa hori, udalerriko merkatariek, profesionalak eta ostalaritza-espezializimenduek bultzatu dute, hauen lankidetzagaz: Getxolan Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Zerbitzua, Kultur Etxea, Getxo Kirolak eta udalerriko kirol-klubak. Urrira bitartean, herritarrek aukera izango dute formatu oso ezberdineko doako proposamenez gozatzeko (hitzaldiak, tailerak, erakusketak,

eskolak, eta abar). Esku-pilota saioaren ondoren, GetxoAktibatu! ekimenak dozena bat proposamen aurreikusi ditu apirilko bigarren hamabostaldirako; berbarako *slackline*-, xake- eta pilates- saioak, bizikleten mekanika ezagutzen hasteko tailerra, kafe-dastaketa, argazki-erakusketa bat, eta lore-tailerra. Hala ere, jarduera gehiago egingo dituzte urrira bitartean, kirol eta kultur jarduerak bultzatzeko asmoz. Iazko ekitaldian, 2.500 lagunek parte hartu zuten antolatutako 120 jardueratan baino gehiagotan. ◀

info+: www.getxoaktibatu.com

Belaunaldiek elkar ezagutzeko jarduna

Eguaztenean, hilak 20, ikasle eta nagusien arteko programa martxan ipini zuten Aiboako Eguneko Zentroak eta Algortako San Inazio eskolak. Belaunaldien arteko programa horren helburua da gazteak eta nagusiak aberastuko dituzten jarduerak egitea, elkarrekiko babesa eskaintzea, eta ezagutzak partekatzea. Ikasle eta nagusien arteko enpatia ere landuko dute, nagusiek udalerriarren historia eta balioak transmititzeagaz batera.

Hasieran, tailer bi egingo dituzte, jolasen bidez elkar ezagutzeko. Ondoren talde txikietan elkarriketak egin dituzte, eta hurrengo fasean, tailerretan proposatutako eta igarritako interes-gaietan sakonduko dute. ◀

Zapatuan hasiko dira toponimia-ibilbideak

Aurten ere, Bizarra Lepoan euskararen elkarrekin ibilbide toponimikoak prestatu ditu apiril, maiatz eta ekainarako. Ohi legez, ibilbideak euskaraz dira, eta taldeka egin daitezke. Aurten, iazkoez gainera, beste ibilbide bat eskainiko dute: Begoñako galeriak. Ibilbideetan, Getxoko historia, geologia, flora, fauna eta toponimia ezagutaraziko dituzte. Guztira, bost ibilbide egongo dira, eta horietako bakoitza zapatu edo domeka batean eskainiko dute. Hurrengo zapatuan izango da, hilaren 23an; hezeguneak ezagutaraziko dituzte, goizeko 09:00etatik aurrera. Aldez aurretik izena eman beharra dago. ◀

info+: www.bizarralepoan.eus
harremanetarako: getxo.toponimia@gmail.com

txakoli motaTx
ganeTx
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarianda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

Unai
Taberna · Jatetxea

Algortako Etorbidea, 96 · 48991 Getxo
94 466 16 61 · tabernaunai@hotmail.com

EKIN
TABERNA · JATETXEA

Bolue 4, ALGORTA
94 608 04 62

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!

portu zaharra bar


Portu Zaharra kalea 30
48991 Algorta-Getxo
94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

GARRKO
1967

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Erendio



Goikuriak helegitea ipini du daborduko. © EAJ

Goikuria ikertuta, txatarategiagatik

Joseba Goikouria Erandioko alka-tea ikertzen dabil Bilboko 3. in-strukzio-epaitegia, ustezko ez-e-gitezko prebarikazioagatik. Auzi aurreko diligentziak 2014an zabaldu zituen epaitegiak, Asuako txatarategi bat hamabost bat urtean lizentzia bari-k funtzionamenduan ibili delakoan. Goikouriagaz batera, ardura beraga-tik, epaileak Hirigintza Arloan jardun duten zinegotzi bi ikertzeari ekin dio: Asier San Nicolas eta Itziar Coba. Iker-keta agintzeko autoan, magistratuak

baztertu egin du hiru politikariek delitu ekologikorik egin izana, auzia zabaldu zuen salaketan esaten zenaren aurka. Joseba Goikouria ez du deklaraziorik egin gura izan, «martxan dabilen au-ziarekiko errespetuagatik», baina argi-tu du «gaia antzinatik» datorrela, eta urte horietan enpresak «ez duela au-zokideen kexarik sortu bere funtziona-menduagatik». Bitartean, alkateak he-legitea ipini du daborduko. Epailearen esku lotuko da epaiketa abiatzea ala ikerketa bertan behera uztea. ◀

Liburuaren Eguna ospatuko dute herriko plaza nagusietan

Apirilaren 23a, zapatua, izango da Nazioarteko Liburu Eguna, Unesco erakundeak 1996an zehaztu zue-nez. Hala ere, erandioztarrek egun bat aurreratuko dute, eta hilaren 22an, ba-rikua, gogoratuko dute, Altzaga eta Astrabuduko gune nagusietan, Irai-laren 23a eta Josu Murueta plazetan, hain zuzen ere. *Itsasoan, hamaika li-buru!* goiburua aukeratu dute aurtien-

gorako, eta Erandioko Udal Bibliote-kak hainbat tailer antolatu du lau eta hamabi urte bitarteko neska-mutilen-tzat. Liburuzainek aurreratu dutenez, 17:00etatik 19:00etara honako jardue-rak izango dira: liburu erraldoia, es-kulan-piratak, magia eta pirata-zien-tzialariak. Ostean, eguna amaitzeko, 19:00etan Erandiogoikoan kontalari batek ingelesez kontatuko du ipuina. ◀



Saltsan

AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA
Herri-langilea

Euskara bizikidetzarako lagungarri

Kultur aniztasun itzela daukagu Euskal Herrian. Ehun hizkuntzatik gora hitz egiten dira gure lurraldean, eta euskaraz bizi nahi dugu euskaltza-leok. Baina zer diote besteek? Euskaraz bizi garenon eta euskara urruna-go bizi dutenen arteko elkarriketa bultzatzea du helburu maiatzaren 7an Leioako Campusean izango den gune irekiak: *Zubideak*, zubi, bide eta ideiak partekatzeko foroa, Euskaltzaleon Mugimenduak beste eragile askorekin batera antolatua. Hori izan dut gogoan gaur udaletxeko lan-kontuez aritu den mahaian enegarren aldiz entzun dudanean baztertzaila dela buruzagitzako lanpostu bat betetzeko euskara eskatzea. ◀

Sukaldaritza-ikastaroa laster dastatuko dute berbalagunek

Maiatzaren 2tik 30era bitarteko as-telehenetan egingo du sukaldari-tzako ikastaroa aurtion Berbots euskal-tzaleen topaguneak. Gure hizkuntzan, giro apartaz gozatzeko aukera ema-teaz gainera, oinarritzko platerak zein apur bat zailagoak ere zelan egin era-kutsiko dute bertan. Ordutegiari dago-kionez, 19:00etatik 21:00etara izango

dira eskolak, Bekoa ikastetxean. Ikas-tarorako izen-ematea telefonoz zein posta elektronikoz egin daiteke hila-ren 28ra arte. Berbotskideek eta ber-balagunek bosna euro baino ez dituz-te ordaindu beharko; gainerakoek, 10 euro. Leku-kopurua mugatua da. ◀

izen-ematea: 667 995 716 /
berbalagunerandio@gmail.com

Haurreskolak erakutsiko dituzte datorren astean

Martitzenean eta eguaztenean, Apirilaren 26an eta 27an, jardunaldi irekia egingo dute Astrabuduko eta Altagako haur-eskolek, hurrenez hurren. Instalazioak, metodologia eta hezitzaileak ezagutu gura dituzten gu-rasoek, tutoreek eta neska-mutilek ho-rretarako aukera izango dute, Astrabu-duan, 15:30etik 17:30era; eta Altagan, 17:00etatik 19:00etara. Erandiogoiko-koak ez du bisitarien eguna antolatu, eskaerak eskaintzen dituzten lekuak baino gehiago direlako, eta, halabeha-rrez, hainbat lagun kanpoan geratuko direlako. Izena emateko epea maiatza-ren 2tik 11ra izango da. ◀

Siriako errefuxiatuen aldeko elikagai-batzea martxan dago

Apirila amaitu bitartean, Erandion elikagaiak batzen ibiliko da Loiu-ko Danontzat elkarte, Siriako gerratik ihes egin eta Greziako Kios irlan erre-fuxiatu direnentzat. Bertan, Zaporeak boluntario-talde donostiarrak hilabe-teak daroatza otorduak ematen 1.200 bat pertsonari; asko, umeak. Ekarpe-na egin gura dutenek ondoko lekuetan egin dezakete: Erandiogoikoan, Dama-txo emakumeen-elkartearen eta Goi-Al-de dantza-taldearen egoitzetan; Astra-buduan, Josu Muruetan; eta Altagan, Eroski, Eguzkilore kafetegia, Puri su-permerkatua eta Modas Conchin. ◀

info+: Hiruka.eus/erandio

UDABARRIKO FASEA

Bizkaia bertsozale txapelketa 2016

ERANDIO

Josu Murueta kultur etxean (Astrabudua).
Apirilaren 23an, 17:30ean

Aitor Esteban Etxebarria, Arrate Illaro Etxebarria
Bikain Urkidi Etxebarria, Gurutz Uruburu Ibarguengoitia
Illart Gumuzio Larrazabal, Paule Ixiar Loizaga Legarra

Antolatzailea: Bobesleak: Loguntzailea:

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

Leioa

Sabino Arana kalea atontzeko, milioi bi



Lanak noiz hasiko diren ez dute zehaztu.

Diru horren truke, aparkatzeko 99 leku 1,6 milioi euroan erosi izana egotzi dio EH Bilduk Udalari; EAJko zinegotzi Iban Rodriguezek hala denik gezurtatu du.

Agintari leioaztarrek martxoko udal aldizkarian jakinarazitakoaren arabera, tranbiaren proiekturako aspalditik aginduta zeuzkan bi milioi euroko laguntza ematea onartu du Eusko Trenbide Sareak; Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakundeak jarritako dirua Sabino Arana kalea konpontzeko erabiliko dute. Hala ere, Iban Rodriguez alkateordeak aitortu duenez, kale hori atontzeko «hiru milioi euro baino gehiago» beharko dira; «leioaztar denon poltsikotik atera beharko da falta den dirua». Udal agintariak azaldu duenez, proiektua idazten dabilta orain. Hori amaitutakoan, Sabino Arana kaleko bizilagun eta merkatariak «partidetza-prozesua» abiatuko dute, «Luis Bilbao Libano kaleagaz egin zen bezala». «Espero dugu proiektuaren lizitazioa ahalik eta arinen egin ahal izatea», gaineratu du Rodriguezek. Besteak beste, lur-azpiko kanalizazioak hobetu, eta, neurri batean, kalea

oinezkoentzat egokituko dute. Izan ere, ibilgailuak garajeetara sartu eta atera, eta zamatan egin ahal izango dira bakarrik, konponketen ostean.

Leioandiko aparkalekuak

Leioandin, aparkatzeko 99 leku Visesari 1,6 milioi euroan erostea erabaki du orain gutxi Udal Gobernu Taldeak. Ekimen hori Sabino Arana kalea konpontzeko Jaurlaritzak egingo duen bi milioi euroko aurrerapenagatik hartu izana gezurtatu du Iban Rodriguez EAJko zinegotziak, EH Bilduk esandakoa ezeztatuz. Koalizio ezkerzalearen arabera, «herriaren erdigunean eta beste hainbat auzotan beharrezkoak dira» aparkatzeko lekuak. Rodriguezek arabera, ordea, Leioandin 400 etxebizitza eraikitzen dabilta; horiekaz batera egingo dituzten aparkatzeko 500 lekuak «ez dira nahikoak» bertara bizitzera joango diren laguntzat. Erositako aparkaleku denak salgai ipiniko ditu Udalak.

Berbodromoa egingo dute apirilaren 27an, Sakoneta kiroldegian

Apirilaren 27an, eguaztena, berbodromoa egingo dute, herriko euskaldunak eta euskara ikasten dabilzanak harremanetan jartzeko. Hiru saio egingo dituzte Sakoneta kiroldegian: 10:15ean, 16:15ean eta 19:00etan. Antolatzaileek adierazi dutenez, aurretik izena eman beharko dute parte-hartzaileek. Hala, aulkiak egongo dira bost edo sei laguneko taldeak egiteko; hainbat gairen gainean berba egiteko aukera edukiko dute. 15-20 minuturen ostean, parte-hartzaileek taldea aldatuko dute.

info ++: 688 850 129 / berbaldun.leioa@gmail.com

Apirilaren 23an musikaren topalekua izango da Leioa

Datozen hilabeteetan, hainbat musikariren topalekua izango da Leioa; Udal Musika Eskolak hiru topaketa antolatu ditu-eta. Hala, zapatu honetan, apirilak 23, Euskal Herriko hainbat txokotako musika-ikasleak hurbilduko dira, oboe eta fagotaren doinuak eskaintzeko asmoz. Goizean, entsegua egingo dute; arratsian, oster, kontzertua emango dute, 18:00etan, musika-eskolan. Hurrengo hitzorduei dagokienez, maiatzaren 14an saxofoi-topaketa egingo dute; eta, maiatzaren 15ean, 60 flauta-ikasle bakoitzak joko dute.

Burujabetza bultzatu gura du apirilaren 23ko Gazte Egunak

Zapatu honetan, Gazte Eguna egingo du Kale Gorrian gazte-azanbladak; *Burujabetzaren giltza. Gazteok Lei(h)oa zabaltzera goaz!* goiburupean, hainbat jardura antolatu dituzte. Horien bidez, «burujabetzaren ideia» indartu, eta «Leioa berria eraikitzen hasteko lehenengo urratsa» eman gura dute gazteek. Diotenez, «Leioa ez da gazteontzako herria. Hori aldatu beharra dago».

Egitaraia

- 13:00** Kalejira musikagaz, Xcaret tabernatik.
- 15:00** Parrillada (aukera beganoa). 5 euro.
- 17:00** Ekimena: *Okupazioaren haziak landatuz.*
- 18:00** Berbaldia: *Gazteekin esperientziak eta okupazioaren ondorio legalak.*
- 20:00** Mikrofona zabali: *Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko!*

Gazte Egunean dabilzan lagunak topatzeko, Boulevardetik ateratzen diren geziei jarraitu beharko zaie.

Pinosoloren gaineko ebazpen berriak, EAEko Auzitegian

Pinosolo auziaren gaineko ebazpen bi plazaratu zituen apirilaren 14an EAEko Auzitegi Nagusiak; horien arabera, «konkurrentzia librearen kontrako hitzarmena» egon zen Arcain eta Aros enpresen artean. Udalak Arcain kontratatatu zuen kiroldegia proiektua esleitzeko lehiaketaren baldintzak prestatzeko. Auzitegi Nagusiak «frogatutzat» eman duenez, lehiaketa publikoa deitu baino lehenago, aurkeztuko zuen proiektua prestatzeko, hainbat lan enkargatu zizkion Arosek arkitektura-enpresa bati; horren emaitzak Arcaini helarazi omen zizkion, etorkizunean izenpetuko zuten kontratuaren baldintzak prestatzeko. «Irabazi zuen planoan Arcainen eskuetan zegoen, lehiaketa deitu baino hilabete batzuk lehenago», epaileek diotenez.

Hala ere, 2013ko maiatzaren 21ean, LEA Lehiaren Euskal Agintaritzak Arcaini ezarritako 89.000 euroko isuna murriztu egin du EAEko Auzitegi Nagusiak; 66.581,78 euro ordaindu beharko ditu. Bigarren ebazpenean,



Lehiaketa 50 milioi eurotik gorakoa zen.

berriaz, Arosen kontrako 45.000 euroko isuna mantendu egin dute epaileek. Baina, LEA ez bezala, Pinosolo kiroldegia kontratua bertan behera uzteagatik Leioako Udalarik kalte-ordaina eskatzeko baimena ematen dio Auzitegi Nagusiak Arosi. Sententziak irmoak dira; ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Iban Rodriguez alkateordeak esan duenez, «sententziak eskuetan eduki arte, esateko gutxi daukagu. Izan ere, Udalak ez dauka zerikusirik sumario horregaz. Horiek eskuratu eta ondo aztertu ostean erabakiko dugu zein neurri hartu behar dugun».

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jardura ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

BETIKO
IKASTOLA

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Sopela

Flamenkoa eta txalaparta uztartuz

La Pulga dantzariak *Berriketan* ikuskizuna taularatuko du zapatu honetan, apirilak 23, Kurtzio kultur etxean. Emanaldia 20:00etan izango da; sarrerak 3 euroan daude.

Zapatu honetan, apirilak 23, *Berriketan* ikuskizuna taularatuko du *La Pulga* goitizeganagaz ezaguna den Askoa Etxebarrieta Lasheras flamenko-dantzari eta irakasle gasteiztarrek. Emanaldia 20:00etan izango da, Kurtzio kultur etxean; sarrerak 3 euroan daude salgai. Flamenko-ikuskizunean euskal musika-tresnek ere berebiziko garrantzia daukate. Batetik, Jose Gil *Giliyo* kajoi- eta perkusio-jolearen doinuei jarraituz dantzatuko du *La Pulga*. Bestetik, Adrian Larrañaga pandero-jolea, eta Mikel Aveiro eta Aitor Korta txalapartariak ere lagun izango ditu oholza gainean Etxebarriak.

Izan ere, euskal sustraiak eta flamenkoa uztartzen dituen proiektua da *Berriketan*; perkusio, gitarra eta «ke-jioen» artean, dantza eta txalapartaren arteko elkarrizketak ikus eta entzun daitezke. «Flamenkoa eta euskal sustraiak fusionatzen dituen ikuskizuna da. Bere partaideen eskarmentu luzeak aire berriak dakartza, sensibiltatez beteaz, flamenko eta txalapartaren arteko elkarrizketara. Benetan ikuskizun berritzaile, aberasgarri eta oso sentibera da flamenkoaren eta



Euskal sustraiak eta flamenkoa uztartzen ditu ikuskizunak. © LA PULGA

euskal kulturaren maitaleentzat», diote *La Pulga* eta bere taldekideek.

Gasteizko bailaorak dantza klasi-koa ikasi ondoren, flamenkoa ezagutu zuen, herri-tailer batzuetan. Flamenkoaz maiteminduta, Granada eta Sevillara jo zuen Askoa Etxebarreitak, flamenkoaren oinarri eta iturriak aurkitzeko asmoz. Daborduko *La Pulga* ezizenez ezaguna, zortzi urtean, ar-

tista ospetsuek emandako ikastaroetan, dantzaren sustraletan sakontzen ibili da. Gaur egun, Madril eta Sevillan ikasten segitzen du, eta bere taldeagaz ere lan egiten du: *La Pulga* y Compañía, Adabegi y La Patro Teatro. Horrez gainera, tailerrak, ikastaro trinkoak eta flamenko-erritmoak irakasten ditu. ◀

info+: lapulgaflamenco.com

Garbigunearen erabilera bultzatzen dihardu Udalak

Hondakinak birziklatzeko beste kanpaina bat martxan ipini du Udalak; *Traste handiak, astean behin!* goiburupean, garbigunearen erabilera sustatu gura dute. Agintari sope- loztarrek azaldu dutenez, hondakinak gaika batu ahal izateko lekua da garbigunea; bizilagunek zein merkatariek erabil dezakete. Bertan hondakin mota asko jasotzen da, batez ere, berreskuratzeko, birziklatzeko eta baimendutako kudeatzaileei emateko. Garbiguneak jaso ahal dituen hondakinen artean hurrengo hauek daude: gai inerteak edo metalikoak, egurra, plastikoak, txatarra, etxetresna elektrikoak, papera eta kartoia, pneumatikoak, metagailu eta bateriak, olioia, beira eta beste hondakin batzuk (berbarako, pilak, kartutxoak, sakelako telefonoak...). Garbigunea astelehene- tik barikura dago zabalik, 09:00etatik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara; zapa- tuetan, goizez bakarrik. ◀

Zuntz optikoa ekarri gura dute AEBetatik, ur azpitik

Joan den astean, Sopelako itsas hon- doaz aztertzen ibili zen *Meridian* on- tzi ingelesa; Nautilus kanpainaren barruan, Virginia estatutik (AEB) itsa- sertz sopeloztarrera ekarri gura dute, itsasoaren azpitik, 8.000 kilometro- ko luzerako zuntz optikoko kablea, 2017an. Prospekzio-lanek Espainiako Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Mi- nisterioaren oniritzia daukate; era- kunde horrek eman zion «kanpaina zientifikoa» aurrera eroan ahal izateko baimena Erresuma Batuen Madri- leko Enbaxadari. Hala, *Meridian* itsa- sontzia apirilaren 10etik 15era ibili da Sopelako kostaldean; daborduko alde egin du Uribe Kostako uretatik. ◀

Zainduz programaren barruan, berbaldiak antolatu dituzte

Martxoaren 16an heldu zen So- pelara Zainduz egitasmoa; mendekotasun egoeran dau- den pertsonen zaintzaileei zuzendu- ta, zenbait berbaldi eskainiko dituzte. Hurrengo hitzordua astelehen hone- tan, apirilak 25, izango da. Gogoeta egingo dute harrapatzeaz gainera, hau da, ibilgailuek pertsonak zelan ez harrapatu. Maiatzaren 25ean, be- rriz, etxeko arriskuak zelan saihe- su izango dute berbabide. Azkenik, urriaren 19an, *Ansietatea eta perso- na nagusiak* izango da gaia. Berbaldi denak nagusien etxean emango dituzte, 18:00etatik 19:30era bitartean. Doa- koak izango dira, eta ez da beharrez- koa aurretik izena ematea.

Bizkaiko Foru Aldundiak zuzen- tzen du Zainduz programa; hurbi- leko zaintza eskaintzeko ekintzak, prestazioak eta zerbitzuak sartzen dira horretan. Autonomia pertsonala sustatzeko jardueren bidez, bolunta- riotzaren bidez eta zaintzaileentzako laguntza psikosozialaren bidez bide-



© BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

ratzen da zaintza hori. Egitasmo horri esker, mendetasuna duten adinekoen eta haien senide edo zaintzaileen bizi- kalitatea hobetu egiten da; era berean, giro afektibo ezagunean, hurbilekoan eta on batean eskaini ahal da zaintza hori. Programaren aurtengo aurrekon- tu osoa, 400.000 eurokoa da, iaz baino ia heren bat gehiago. Zainduz ekime- na lurralde osora heltzen da, eta, da- borduko, Bizkaiko biztanleen %78,57 hartzen ditu. Besteak beste, Getxo eta Leioako udalakaz eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateagaz sinatu ditu hitzarmenak Foru Aldundiak. ◀

Domeka honetan, Zazpigarren ipotxa pelikula, Kurtzion

Zinema Familiarra zikloaren beste Zsaio bat egongo da domeka hone- tan, hilak 24, Kurtzio kultur etxean. Bo- ris Aljinovic eta Harald Siepermannek zuzendutako *Zazpigarren ipotxa* (2014) pelikula proiektatuko dute, 18:00etan; sarrera, doan. Animaziozko filma Zi- neuskadik euskaratu zuen, Zinema Euskaraz egitasmoaren barruan. ◀



Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus



Ez da giro

GERMAN
KORTABARRIA IGARTUA

1766ko matxinada gogoan

Apiril honetan bete dira 250 urte Azkoiti eta Azpeitiko matxinadatik, Iñigo Aranbarrik *Txanton Garrote agertokitik jaitsi zen eguna* lanean gogora ekarri digunez. 1766an, Carlos III.aren agindu liberalizatzaile batek alearen kontrol publikoa kendu eta salerosketa librea ezarri ondoren, lur-jabe eta merkataria garia eta artoa pilatzen ari ziren, prezioekin espekulatzen eta garestien sal zezaketen merkatuetara eramaten. Goseak eta gose are handiagoaren beldurrak eragin zuen matxinada hura, Gipuzkoako beste hainbat herritan eta Markina, Ondarroa eta inguruetan ere erreplikak izan zituen.

Azkoiti eta Azpeitiko jauntxoek, matxinoen oldarrak kikilduta, kapitulazioak onartu behar izan zituzten, gariaren eta artoaren salneurriak hitzartuz. Herritarrek kantu eta dantzaz ospatu zuten garaipenak ez zuen luze jo; bailara eta probintziako jauntxoek 1500 gizoneko ostea bidali zuten eta Urola ibarrean preso-sokak hartu zuen soka-dantzaren lekua: «erbeste-ratzeak, kartzelaldiak, armadan egin beharreko zerbitzuak, isunak... 439 kondenatu agertzen dira azken nominan» (Aranbarri), tartean emakume eta adineko dezente; «Mozal» legearen aurrekaria ere ezarri zuen Diputazioak, bitxia bada ere, propio emakumeei zuzendua: «*que las justicias prendan también a cualquier mujer que hable contra estas providencias*».

Merezi du aipatzea 1766an libertatearen eta aurrerapenaren izenean herri xehea xehatu zutenen buru zirela euskaldun ospetsutzat ohoratzen ditugun Peñafloidako kondea, Narrosko markesa eta besteren bat, itxura guztien arabera Euskalerriren (Irurac bat) euskal herritarren baino adiskideagoak zirenak. Historia, jakina, nork idazten duen. ◀

Berango



Jarduera guztiak Berangoeta kultur etxean izango dira.

Liburuen inguruko astebeteko egitaraua

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, astebeteko egitaraua prestatu dute, hilaren 18tik 22ra arte.

Berango udalerriko auzokideak Liburuaren Astearen murgilduta daude egunotan. Izan ere, apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da mundu osoan; hori dela-eta, berangoztarrek astebeteko egitarauaz gozatu ahal izango dute egun hori ospatzeko, eta udalerriko neska-mutil txikiak liburuaren eta literaturaren mundura erakarri eta horretan sartzeko egundoko aukera izango dute. Hala, egunez egun tailer eta ekintza

bereziak egingo dituzte Berangoeta kultur etxean, hilaren 22ra arte, bariak. Berbarako, egunean, hilak 21, libretak egiteko tailerra egingo dute, 16:30etik 18:00etara. Jarraian, kultur etxera hurbildutako umeek liburuaren ginkanan parte hartzeko aukera izango dute, 18:00etatik 19:30era. Hurrengo egunean, barikuan, 16:30etik 18:00ra arteko tailer-saioan *origami* arte japoniarrean murgilduko dira neska-mutilak. Ondoren, 19:30era bitartean, norberaren emozioak lantzeko ipuinak landuko dituzte. Udal arduradunek jakinarazi dutenez, ekintza denek begiraleak izango dituzte; hala ere, ohartarazi dute gurasoek lagunduta egon behar dutela umeek. ◀

harremanetarako: berangokultura@berango.org

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute

Urtero lege, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute Berango. Horretarako, apirilaren 24an, hainbat ikuskizun aurkeztuko dituzte, udalerriko frontoian, eguerdiko 13:00etatik aurrera. Bertan, Berango hainbat dantza-talde euren lanak aurkeztuko dituzte. Hala, oholtza gainean izango dira Simon Otxandategi Dantza Taldeko umeak, Udal Ballet Eskolako ikasleak eta Emakumearen Elkarteko kideak, beste hainbat taldegaz batera. Besteak beste, Emakumearen elkartekoek dantza sevillarrak egingo dituzte. ◀

Pinto Pinto txotxongilo lana, apirilaren 24an

Anita Maravillas antzerki-taldeak *Pinto Pinto* txotxongilo-lana aurkeztuko du apirilaren 24an, domekan, Berango Antzokian. Saioa 18:00etan izango da, eta sarrera 3 euroan dago salgai. Antzezlanak euskaraz izango da, eta 3 urtetik gorako neska-mutiei dago zuzenduta. Horretan, arropagarbategi bateko langile biren arteko harremanen nondik norakoak aurkezten dituzte. Halako batean, galdutako txakurkume bat agertuko da garbategi horretan, eta horrek langile bien munduarekiko ikuspegia eraldatuko du.

Jabier Renobales eta Ivan Alonso zuzenduko dute 50 minutu irauten duen lana, eta Miren Larrea zornotzarra eta Valentina Raposo txiletarra izango dira aktoreak. ◀

Urduliz

Siriako errefuxiatuen aldeko ekimenak antolatu dituzte

Siriako errefuxiatuen aferra europar guztien ahotan dago egunotan, baita euskaldunonenean ere. Hori dela-eta, gerratik ihesi bizitza hobe baten bila datozeinei laguntza eskaintzeko asmoz, Urdulizko Merkatarien Elkartek (UME) Siriako neska-mutil errefuxiatuak laguntzeko proiektu solidarioa abiatu du. Hala, apirilaren 23an, zapatuan, kontzertu solidarioa hartuko du Urdulizko kultur etxeak, 20:00etatik aurrera. Opus Cuatro musika-taldeak joko du, eta sarrera 15 euroan eskuratu ahal izango da; sarrera bakoitzaren 5 euro proiektura bidera-



tuko dituzte. Modu berean, aukera egongo da euro baten truke gau bi landetxe batean igarotzeko zozketan parte hartzeko, kontzertuaren ondoren. ◀

Aukeraon bigarren eskuko azoka, maiatzaren 14an

Datorren maiatzaren 14an, zapatuan, Uribe Kostako Aukeraon bigarren eskuko azoka egingo dute Urdulizko Antsonekoa plazan, 11:00etatik 15:00etara. Merkatua eskualde mailakoa da, eta azkenengoz Berangoan egin zuten, joan den apirilaren 10ean. Urdulizko merkatuan parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, hilaren 26a baino lehenago. Horretarako, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatera jo beharra dago. Azokaren helburua da berrerrabiltzea eta birziklatzea sustatzea, besteak beste. ◀

info+: www.uribekosta.eu

Plentzia

Putxera onenaren bila, zapatuan



Putxera eta Euskal Jai Eguna egingo dute zapatuan, hilak 23.

Ohi legez, udaberria bete-betean da-goela, Putxera eta Euskal Jai Eguna egingo dute Plentzian. Aurtan, horretarako data hilaren 23a aukeratu dute, zapatuagaz. Egun osoko egitaraua prestatu dute auzotarren gozamenarako. Goizeko 10:30ean emango diote hasiera ekimenari, putxeretan izena emateagaz batera. Handik ordu eta erdira, 12:00etan, Eliz plazan batuko dira, Itxas Eder dantza-taldearen emaldiagaz gozatzeko, eta 12:00etan kalejira abiatuko dute triki-poteoan; alde

zaharreen eta portuan ibiliko dira. Putxera lehiaketaren parte-hartzaileak, bitartean, jatekoa prestatzen ibiliko dira, 13:30ean lapikoak aurkeztu ahal izateko. Eguerdiko 14:30ean putxeren sariak banatuko dituzte, eta jarraian, 15:00etan, herri-bazkaria egingo dute Jai Alai frontoian bertaratutakoen tripiak behar legez asetzeko; txartelak aldeztu aurretik eskura daitezke Uriolan eta turismo-bulegoetan. Bazkalostean, bertso-saioagaz gozatu ahal izango dute, 16:30etik aurrera. ◀

Gorozika natura-eskolan, aste-akabuko egonaldiak

Plentziako Gurasoen Elkartek Plentzia Eskolako Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetakoko neska-mutilentzako asteburuko egonaldia antolatu du maiatzaren 21 eta 22rako, eta 1., 2. eta 3. mailetakoko ikasleentzat maiatzaren 28 eta 29rako, Gorozika natura-eskolan. Horretan parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, apirilaren 29a, barikua

baino lehenago. Gurasoen Elkarteko kideek 60 euro ordaindu beharko dituzte horretarako; gainerakoek, ostera, 75 euro.

Gorozika natura-eskola Muxikan (Bizkaia) dago, eta bertan gure natura-ingurunea ezagutarazten dute, eta modu berezian, Urdaibaiko ekosistemak eta ekosistemen arteko loturak. ◀

info+: facebook.com/igepilentzia

Barrika

Janari osasungarria prestatzeko ikastaroa

Sasoian egoteko janaria ondo prestatzea «ezinbestekoa» ei da; horregatik, Barrikako Udalak etorkizuneko gizon-emakumeak sukaldaritzan trebatzeko tailerra antolatu du hilaren 28rako, eguna. Hala, sukaldaritzako osasungarrian murgiltzeko saioa egingo dute liburutegian. Horretan parte hartu gura duten neska-mutilek aldeztu aurretik izena eman beharko dute. ◀

Ipuin-kontalaria, Liburuaren Egunean

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko asmoz, apirilaren 23an, zapatuan, udalerriko txikienei begirako ipuin-kontaketa antolatu du Barrikako Udalak. Saioa liburutegian izango da, goizeko 11:30ean. Bertan, *Behin munduan* istorioa kontatuko dute, neska-mutilek liburuen mundura hurreratzeko asmoz. ◀

info +: www.barrika.eu

Gorliz

Arrain-kontserbak eta txakolina dastatzeko saioa

Udalerriko txoko gastronomiko ezagunak eta ez hain ezagunak ezagutarazteko asmoz, aurrera doa *Dastatu Gorliz* egitasmoa. Oraingo honetan, hitzordua hilaren 22an izango da, barikuan. Horretarako, parte hartzen dutenek Gorlizko Xurrut tabernara hurbildu beharko dute, bertan es-

kainiko dituzten arrain-kontserba eta txakolin desberdinak dastatu ahal izateko. Arrastiko 19:30ean lotu dira, tabernan bertan. Parte hartzeko, aldeztu aurretik izena eman beharra dago Turismo Bulegoan, eta 15 euro ordaindu beharko dituzte partaideek. ◀

info +: www.gorliz.eu

Herri Urratserako autobusa, Plentzian eta Gorlizen

Herri Urrats elkarteak maiatzaren bigarren domekan antolatzen du urtero Herri Urrats festa Senperako aintziran edo lakuan. Hala, aurtan maiatzaren 8an izango da euskaltzaleen ospakizuna, *Euskara jalgi hadi mundura* goiburuagaz. Aurtengoa 33. ekitaldia izango da, eta Gorlizko eta Plentziako udalek autobusa antolatu dute, eskualdeko euskaltzaleak bertaratzeko asmoz. Busean joan gura dutenek hilaren 15era arte izango dute izena emateko aukera. Horretarako, Gorlizko zein Plentziako kultur etxetan izena eman beharko dute. Aipatutako udalerrietan erroldatuta daudenek 5 euro ordaindu beharko dituzte;

gainontzekoek, ostera, 8 euro. Autobusaren irteera 09:00etan izango da Gorlizetik (Euskadiko Kutxa parean); Plentziakoek, ostera, 09:15ean hartuko dute, Charter parean. Buelta, berri, arrastiko 08:00etan izango da Gorlizetik; Plentziara ordu laurden beranduago helduko dira.

Ipuin-kontalaria, Sertutxenan

Bestalde, hilaren 23an, zapatua, Lupe Lekuona ipuin-kontalaria jardungo du Sertutxena kultur etxean, 18:30etik aurrera; 4 urtetik gorako umeei begirako saioa da. Lekuonak fantasiarako ipuinak eta euskal ipuin tradizionalak kontatzen ditu, besteak beste. ◀

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR

PRIMADERAKO FESTIBALA

**BILBON. APIRILAREN
9TIK 24RA**

**WWW.
LORALDIA.EUS**

argihizkiak 2015



Uribe Kostako hainbat herritan izan da oraintsu arte Argihizkiak2015 erakusketa; pasa den urteko Argihizkiak lehiaketako argazkiak eta horien gaineko testurik onenak jasotzen dituen esposizinoa. Ikusteko aukerarik baliatu ez duenak honi eman diezaiola arreta; erakustaldi honegaz amaituko da-eta ibilaldia, eta aurtengoari emango zaio lekukoa. Izan ere, 2016ko Argihizkiak lehiaketarako argazkiak daborduko ikusgai dauzkazue webgunean edo Leioako Boulevarden... Horiei begira ipini, eta hasi letrak eta berbak lotzen... Ohi den legez, horietan oinarritu beharko dituzuelako testuak. Hala, Argihizkiak2016 lehiaketarako idatzia bidaltzeko epea maiatzaren 2tik 31ra bitartekoa izango da; hurrengoan, horren inguruko kontu den-denak...

ARGIHIZKIAK
www.argihizkiak.com



David Herranz Esteban
Zaragoza, 1972 / Romo
Uyuniko gatzaga (Potosi, Bolivia), 2007

TESTU LABURRA

Mikel Illarregi Elberdin
Leitza, 1959

SARI
NAGUSIA

INFINITURANTZ

Hor,
hortxe bizitzaren mugaldean ikusten zaituztet.
Infiniturako
bukaerarik gabeko bidaiaren hasieran.

Behin eta

berriz

Zulo

Ilunak

infinituaren

Zulora

garamatza

Bizitza eta heriotzaren arteko simetrian,
ikusten zaituztet,
denboraren joan-etorrian
ene burua ere ikusten dut,
nire izanaren ispilu agertu zarete.
Sorkuntzaren itzalean dago herioa,
amaieran baitago hasieraren muga.
Hasierarekin batera amaiera dator
hasteari bukaera dagokio.

Bagoaz

mugarik

ez duen

bidean

Infiniturantz,

Alegia

Hor zaudete,

eta,

hortxe gaude geroaren aurrean
azkengabeko amaigabetasunean.

Derrigorrezko

bidean

Mundua sortu zenetik
eten gabe egin den galdearekin
gaurkoari etena eman nahi diot:

Amaierak hasiera berria bai al dakar?

TESTU LABUR-LABURRA

Ander Herranz Uribarri
Berango, 1989

ZERUAN BEZALA

Zeruan bezala lurrean ere.



TESTU LABURRA

Lorea Madina Bilbao
Mungia, 1969

TXISTUKA DABIL

Txistuka dabil haizea. Sano, fresko, gogoberritzaile. Kulunka dabil dindala dagoen arroparekin. Asteleheneko amets gaiztoak astintzen, astearteko asmo onak lantzen, asteazkeneko oroimenak bermatzen, osteguneko txinpartak pizten eta ostiraleko jakingura luzatzen. Eta asteburuan??? Asteburuan pentsamenduek eramaten naute noraezean. Segun eta nondik jotzen duen haizeak, horrela mugitzen naiz ni, gora eta behera, jiraka eta biraka. Berdin dio. Gauden momentuan bizitza da inportanteena. Astelehen goizeko ajea berriro zintzilikatuko dut eta behin eta berriro bidea zabalduko dut. Haize fresko, sano eta gogoberritzaile hori usaintzen eta arnasten. Bi mundu desberdinak lotzen, agian amets desberdinak erreal bihurtzen.

TESTU LABUR-LABURRA

Alex de Isusi García
Berango, 1987

ZINTZILIK

Bizitza zintzilik.



TESTU LABURRA

Egoitz Arruti Uria
Azpeitia, 1980

IRUDIKATZEN ZAITUT

Irudikatzen zaitut, zure gelan akiturik, maitasuna min bihurturik, atsekabearen kariatara eskainirik bihotza, soineko beltzez apaindurik gorpua. Irudikatzen zaitut, garai batean ametsen sorleku zenuen leihotik zintzilik, barrenak kulunkan hego haizearen erritmora, amaiera bat antzezten oholtza gainean, ikuslerik gabeko drama non malkoak diren elementu nagusi. Irudikatzen zaitut, etsipenaren besoetan lokartzen, otsoak ihes egiten dizun amets errealetan murgildu aurretik, eta jakinik ere, otsoak samina besterik ez dizula ekartzen, odolusten. Irudikatzen zaitut, atsekabea dastatzen, zaurituen arteko lurrean ereiten, lorerik gabeko lorategi antzu izaten eta arantzen artean igeri. Irudikatzen zaitut, ezkila hotsek zauriturik bakardadea gorrotatzen.

TESTU LABUR-LABURRA

Mirentxu Larrañaga Sueskun
Donostia, 1966

ZEUREGANDIK IHESI

Soina ez ezik muina ere baduzulako hesi, zeure burua nahi zenuke berhezi, zeurez izateraino berezi, halakorik nekez ahal baita jadetsi, ezpada zu zeu izan ezik.



TESTU LABURRA

Olatz Sanchez Lamikiz
Urduliz, 1981

GRISETAN

Harietatik ihesi doaz gozamenera garamatzaten akordeak. Joni Mitchellek laztandu nau, All I want. Esperanza Spaldingek eldarnioa eta errealitatea apetatsu batu ditu tabernan. Bi katu beltz sarreran. Zurrumbiloa, txaloak tarteka. Musikak bizi gaitu. Kaleak ezker-eskuin zeharkatu ohi ditugu antzinako soinu banden bila; klasikoak berpiztu nahi genituzke, espaloiak zikindu. Hiria musikaz zipriztindu, grisetan. Jul Bolinaga, goian bego. J.C. Lera, azken tragoa bai, ezta?

TESTU LABUR-LABURRA

Ivan Leonardo Anisinov
Gorliz, 1997

MUSIKA

Talentua da musikaren arima instrumentua musikaren bihotza eta soinua musikaren motorra.



LEIOA

Dantza Egunaren zain, ikuskizun zoragarri bi

Apirilaren 29ko Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, egunotan beste dantza-emanaldi bi programatu ditu Kultur Leioak. Hasteko, bariku hone-tan, apirilak 22, *Tormenta* ikuskizuna eskainiko du Cielo rasO konpainia gipuzkoarrak. Ekitaldia 20:30ean izango da; sarrerak 10 euroan dau-de salgai. *Tormenta* Igor Calonge ko-reografoaren azken lana da. Aurreko

proiektuen ildotik, gero eta nortasun sendoagoa erakusten du Cielo rasO taldeko zuzendariak; zinematik hur-bil dagoen narrazio-hizkuntza, bate-tik, eta kalitate teknikoagatik nabar-mentzen den fisikotasuna, bestetik, dira bere lanen ezaugarriak. Bestalde, domekan, hilak 24, *Xoga* dantza-ikuskizuna taularatu-ko du Entremans konpainia galizia-

rrak. 3 urtetik gorakoentzat egokia da emanaldia; hitzordua 18:00etan ipini dute; sarrerak 5 euroan egongo dira salgai. *Xoga* (jolastu) «zelakoa zaren aurkitzeko ikuskizuna da, zerez egina zauden». Agertokia, ikus-entzunez-koa, musika eta dantza batzen dituen topaketa didaktikoa da. Dibertsioa, batasuna eta ikuskizuna. Irudimene-tik ezagutzara doan bidaia. ◀

Galizian bizi diren Kubako hainbat dantzarik 2006an sortu zuten Entremans. © FRANCISCO ARES - ENTREMANS

2016/04/21 - 10:00

Ikasleen irakurketa-saioa

Telletxe plaza (Algorta) | Getxo

Getxo udalerriko hainbat ikastetxetako ikasleek parte hartuko dute. Sarrera, doan.

2016/04/21 - 17:30

Bilbotik itsasora, bidegorria orain! bizikleta-martxa

Foru Jauregia (Kale Nagusia, 30) | Bilbo

Biziz Bizi elkartearen antolatuta. Getxon amaituko da ibilaldia. Parte-hartzea, libre.

2016/04/21 - 18:00

Mujeres que mueven el mundo

Landa doktorea, 3 | Sopela

Olga del Castillo gaz. Gaztelaniaz. Doan.

2016/04/21 - 19:00

Harkaitz Cano, Sopelako Irakurleen Klubean

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Beti oporretan liburua-ren inguruan berba egingo du idazleak. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/04/21 - 19:30

Deep Brass Quartet taldea (Musikene)

Altzagako azoka zaharra | Erandio

Erandioko Udal Musika Eskolaren 25. urteurrenaren barruan. Sarrera, doan.

2016/04/21 - 19:30

Miren Agur Meabe idazlearen berbaldia

Telletxe plaza (Algorta) | Getxo

Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak gonbidatuta. *Urtebete itsasargian* liburua-z berba egingo du. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/04/21 - 19:30

Chiapas, los campamentos por la paz y el EZLN berbaldia

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Javier de la Herran Lumatik Herriak elkarteko kideagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/04/21 - 20:00

Errefuxiatuen aldeko kontzentrazioa

Santa Eugenia plaza (Itzubaltzeta) | Getxo

Lotsagarria. Beste Europa bat posible da goiburupean. EH Bilduk deituta.

2016/04/21 - 20:00

Gringo rock-taldea

2016/04/23 - 13:00

Gazte Eguna

Xcaret taberna | Leioa

Kale Gorrian gazte-asanbladak antolatuta. Besteak beste, kalejira, parrilada, berbaldia eta mikrofonoa zabalik egongo dira. Doan.

2016/04/23 - 17:30

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Aitor Esteban itzubaltzetarrak, Arrate Illaro algortarrak, Paule Loizaga sopoletarrak eta beste hiru bertsolarik jokatuko dute Udabarriko Fasearen hirugarren saioa. Sarrera: 3 euro. Informazio gehiago: www.bertsozale.eus

2016/04/23 - 18:00

Fagot- eta oboe-entzunaldia

Musika-eskola | Leioa

Hainbat musika-eskolatako ikasleek emango dute kontzertua. Sarrera, doan.

2016/04/23 - 19:00

Asi nos va pelikula

Berango Antzokia | Berango

Zazpi urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Doan.

2016/04/23 - 19:30

Gozokia saltsan! izeneko ipuin-kontaketa

Telletxe plaza (Algorta) | Getxo

Iraide Urkiagaz eta Arian Sanzegaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/04/23 - 20:00

Opus Cuatro taldearen kontzertu solidarioa

Kultur etxea | Urduliz

Urdulizko Merkatarien Elkartean antolatuta. Sarrera: 15 euro (horietatik 5 euro, Siniatik ihes egin behar izan duten umeentzat).

2016/04/23 - 20:00

Berriketan dantza-ikuskizuna

Kurtzio kultur etxea | Sopela

La Pulga flamenko-dantzafigaz. Sarrera: 3 euro.

2016/04/24 - 12:00

Sein saxofoi-laukotea

Erandioigoikoko eliza | Erandio

Erandioko Udal Musika Eskolaren 25. urteurrenaren barruan. Sarrera, doan.

2016/04/24 - 13:00

Mahai-ingurua idazleakaz eta liburuak sinatzeko saioa

Telletxe plaza (Algorta) | Getxo

Getxoko Liburu Azokaren barruan. Doan.

Euskal Agendaren logoa eta goiburua

Gorlizko eta Plentziako Euskara Agendak daborduko badauzka logoa eta goiburua; bariku honetan, apirilak 22, jendaurrean aurkeztuko dituzte. Ekitaldia Sertutxena areto gorliztarrean egingo dute, 19:00etan. ◀

Lupe Lekuonaren ipuinak, umeentzat

Zapatu honetan, apirilak 23, euskarazko ipuin-saioa eskainiko du Lupe Le-kuona kontalariak, Sertutxena aretoan; sarrera, doan. Saioa 18:30ean hasiko da. Antolatzaileek garaiz ibiltzeko eskatu dute; atea 18:40an itxiko dute. ◀

Pintura erakusketa jarri du Araldik

Apirilaren 30era arte, 30 margolan bai-no gehiago egongo dira ikusgai kultur etxean; Plentziako Araldi emakumeen elkarteak antolatutako pintura-tailerreko partaideek egin dituzte. Zapatu goizean ere ikus daitezke. ◀

Wattsek, Christof Saenger (pianoa), Rudi Engel (baxua) eta Tobias Schriemer (bateria) izango ditu lagun, Areetan. © PATRICIA WATTS



Pío Lindegaard omenduko dute

Aurten ere gorazarre egingo dio Getxoko Jazzaldiak Pío Lindegaardi; jaialdiaren laguntzaile nagusienetarikoa izan zena omentzeko, Emie Watts saxofoi-jole estatubatuarra buru daukan jazz-musikari laukoteak zuzeneko eskainiko du. Grammy sari bi irabazi ditu Wattsek. ◀

Noiz: Apirilak 23, zapatua.
Ordua: 20:00
Non: Andres Isasi musika-eskola (Areetan).
Sarrera: 12 euro. Daborduko salgai.

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Kandilejas taberna (Itzubaltzeta) | Getxo
Getxo Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.

2016/04/22 - 19:00
Jotamentala dokumentala
Kurtzio kultur etxea | Sopela
Uribe Kostako Berbalagun egitasmoak antolatuta. Euskaraz. Leku-kopurua mugatua. Informazio gehiago: 688 899 868

2016/04/22 - 19:00
Inauteria, gizakia naturaren kontra liburuaren aurkezpena
Telletexe plaza (Algorta) | Getxo
Edu Zabala Garagartzagaz. Euskaraz. Doan.

2016/04/22 - 19:00
Kantagunearen kalejira
Baseliza | Plentzia
Entsegua egin ostean, Alde Zaharretik kalejiran joango dira, 20:30ean. Parte-hartzea, libre.

2016/04/22 - 19:00
Magic txirula saioa
Erandiogoikoko gizarte-etxea | Erandio
Joaquin Ponte eta Pedro Ruizegaz. 6 urtetik gorakoentzat. Ingelesez. Sarrera, doan.

2016/04/22 - 20:00
Udaberriko Kontzertua
San Agustín eliza (Altzaga) | Erandio
Ipar Alde (Derio), Sanfran Korue (Bilbo) eta Altzaga (Erandio) abesbatzek kantatuko dute. Sarrera, doan.

2016/04/22 - 21:00
Una hora nueva pelikula
Areetako musika-eskola | Getxo
Zine-klubaren barruan. Gaztelaniaz. Solasaldia ere egongo da. Sarrera, doan.

2016/04/23 - 10:30etik aurrera
Putxera eta Euskal Jai Eguna
Jai-Alai pilotalekua | Plentzia
Lehenengo orduan izena ematea beharrezkoa da; lapikoak 13:30ean aurkeztu beharra dago. Informazio gehiago: www.plentzia.eus

2016/04/23 - 11:00
Ipuin-kontaketa, ingelesez
Telletexe plaza (Algorta) | Getxo
Kids&Us taldeagaz. Denontzat. Sarrera, doan.

2016/04/23 - 11:30
Behin batean... izeneko ipuin-kontaketa
Liburutegia | Barrika
3 eta 7 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Doan.

2016/04/24 - 13:00

Dantza-ikuskitzuna
Pilotalekua | Berango
Hainbat taldek dantzatuko dute: euskal dantzak, balleta, dantza modernoa, sevillanak eta areto-dantzak. Sarrera, doan.

2016/04/24 - 18:00

Zapatila gorridun mutikoa
umeentzako antzerkia
Areetako musika-eskola | Getxo
Ados taldeagaz. 6 urtetik gorakoentzat. Testu barik. Sarrera: 5 euro.

2016/04/24 - 18:00

Zazpigarren ipotxa pelikula
Kurtzio kultur etxea | Sopela
Zinema Familiarra zikloaren barruan. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/04/24 - 18:00

Pinto, Pinto txotxongilo-saioa
Berango Antzokia | Berango
Anita Maravillas antzerki-taldeagaz. Euskaraz. Sarrera: 3 euro.

2016/04/25 - 18:00

Harrapaketen inguruko gogoeten gaineko berbaldia
Nagusien etxea | Sopela
Zainduz programaren barruan. Gaztelaniaz. Doan.

2016/04/25 - 19:00

Gitarra klasiko eta elektrikoko eskola magistralak
Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Erandioko Udal Musika Eskolaren 25. urteurrenaren barruan. Sarrera, doan.

2016/04/26 - 20:00

Langosta pelikula
Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo Zineforumaren barruan. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/04/27 - 18:30

Ansiedad y personas mayores izenburuko berbaldia
Nagusien etxea | Gorliz
Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/04/27 - 19:00

Abreu hari-laukotea
Altzagako azoka zaharra | Erandio
Erandioko Udal Musika Eskolaren 25. urteurrenaren barruan. Sarrera, doan.



Luis Jauregialtzo
Oñati, 1959 / Berango
Donostia, 2014



Marisol Ramirez Fernandez
Sopela, 1968 / Bilbo
Zorrozaurre (Bilbo), 2011



Marta Iraurgi Mendoza
Getxo, 1970
Ses Salines (Eivissa), 2014

TESTU LABURRA

Uxue Telleria Gonzalez

Gorliz, 1997

KONTZIENTZIA

Gaur Euskal Herria garrasika,
euskarazko irrintzia.
Oihukari eman diezaiogun,
sekulako garrantzia.
Dena gure esku dagoela,
hori dugu ahantzia.
Lor dezagun gure aberrian,
arren independentzia.

TESTU LABUR-LABURRA

Miren Kareaga Espiniella

Getxo, 1962

HERRITARRON BORONDATEA

Urrutiko inurriak hamaika
hurbildu ahala elkartuta
erraldoiak indarra dauka
ama, semea, alaba, aita
herritarron borondatea baita.

TESTU LABURRA

Eider Bereziartua Agirre

Azpeitia, 1991

JADA BERANDUEGI DA

Egutegiaren orriak lurra jotzen zuen bakoitzean
koloreak lapurtzen zizkidan eguzkiak,
beste bat ematen euriak.
Non gelditu ote ziren
bidean ikusitako bidegabekeriak?
Eta non ote dira barnean
sentitu nituen maitasunak?
Historiako madarikaziotik,
ipuietako printze izatera pasatu naiz.
Konkistatzaileen lagun izatetik,
Peter Panen etsai izatera.
Milaka eskutitz bidali ditut eta
ez dut inoiz erantzunik jaso.
Botila haren zain igaro dut bizitza osoa,
eta horretan diraut.
Zain egon naiz eta zaharkitu naiz.
Eta orain hemen nago,
besterik egin ezinik. Zain.
Jada beranduegi da
galdutako bidegabekeriak bilatzeko.
Jada beranduegi da
maitasun zaharrak berreskuratzeke.
Jada beranduegi da
bidaiatutako urak berriz agurtzeko.

TESTU LABUR-LABURRA

Alba Garcia Portela

Bilbo, 1988

UGERRAREN HERDOILA

Ugerraren herdoila
baino ez zara,
herdoilaren ugerra.
Baina sokari eusten diozu,
hondoratzeko prest
oraindik ez.

**SARI
NAGUSIA**

TESTU LABURRA

Idoia Carramiñana Miranda

Bilbo, 1985

BEGIEN URMALEAN HITZAK SARKOR

Ezin jakin
ispiluaren
zein aldetan
naizen ni.
Deszifratu nahian
angeluitsuak,
irudipenak zeharkatzeke
beti.
Luzatzen dut
mingaina,
luzatu,
betsareen
bestaldera
erakarriz.

TESTU LABUR-LABURRA

Olatz Sebal Larrañaga

Soraluze, 1983

MAPETAN

Baina agian habiak dira
edo habien itzalak
edo txorien itzalak
mapetan ere agertzen ez direnak
txori lotsagabe hutsalak
oraingoan ez ditut hain erraz aurkitu.



Adi! **V. ArgIHizkiak lehiaketa laster abiatuko dugu**, maiatzaren 2tik 31ra izango da;



📷 **Nerea Falagan Martin**

Sopela, 1991

Brusela (Belgika), 2011



📷 **Patricia Merino**

Algorta, 1978

Moliets et Maa, 2013



📷 **Sonia Aoujil**

Paris, 1973 / Berango

Tobera, 2009 inguru

TESTU LABURRA

Oier Pastor Alonso

Lemoiz, 1990

ERABAKIAK BIZIZ

«Aurrera, aurrera, aurrera...»
errepetiduten deutso bere buruari,
haizearen laztan goxoak sentituz
hegalkada bakoitzean.
Aspaldi ikasi eban atzean geratutea
ez zala gauza ona, eta ordutik
ibili da, kosta ahala kosta aurrera
bultzaka. Asko galdu dauen arren,
beti segidu dau haraitzina abiatutako
hegaldi luzean gora,
bakardadearen garraztasuna berea
egin dauenaren indarra lagun hartuta,
oztopo danak saihestuz.
On, bere helmuga geroz eta
hurbilago sentiduten dauela,
behin be atzera begiratu ez izanak
emoten deutson harrotasunagaz
aditzen dau inguru.
Halanda be, ideia batek urratuten dau
bere lasaidadea,
azken aldian burutik kendu ezin dauen
galdera bakar batek.
Eta norabidea okerra balitz?

TESTU LABUR-LABURRA

Iñigo Bidetxea Erkoreka

Bakio, 1975

TXORI BAT... BEHIN

Badator eta badoa,
guztia instant berean.
Berezko hegaldi matxinoan,
iraganaren oraina.
Badator eta badoa...
orainaren geroa,
guztia instant berean.
Berezko hegaldi matxinoan.

TESTU LABURRA

Jon Jauregi Aretxaga

Amorebieta-Etxano, 1977

PARADISUKO BIZIPOZAREN DANTZA

Zineman 24 fotograma segundo
bakarrerako, paradisuari 12 segundo
erdirako. Segundo erdi bizipoza
artazika dantzatzu adierazteko.
Bizitzaren zuhaizpean
ijutika egiten du
emakumeak ezker-eskuin,
baita zapart egin ere, eta
goienera dela, artazia balitz bezala,
zabal-zabal lotzen da:
besoak heldulekuak,
gorputza kirtena,
gerria lokarria,
eta hankak orratzak direla.
Artazi moldagarrien moduan,
kirtena atzetik aurrera mugitzen da
lurrari heltzeko
edo txoriei xuxurlatzeko, batek daki!
Txoriei galdetu, bestela.
Eta burua altxatu ere egiten du,
haize alde mugituz
eta argiari begira jarriaz,
bizipoza duenak
ez baitio beldurrik argiari, ez ezeri.
Halakoa da segundo erdi paradisuari,
udagoieneko egun argitsu batean,
bizitzaren zuhaizpean, bizipozean.

TESTU LABUR-LABURRA

Iraia Aced Amondaray

Plentzia, 1998

ALAITASUNA

Alaitasuna:
Hitz gabeko hizkuntza.

TESTU LABURRA

Rebeka Solaetxe Estrada

Venezuela, 1984

ASKE ZEN AZKENIK

Eta une zehatz hartan,
neurgabetasun harekin
egin zuen topo.
Ez zuen jada oroitzen noiztik
ez zeukan bere buruarekin
elkartzeko aukerarik.
Ehunka urteko oroitzapenak
lipar baten itzuliko balitzaizkio bezala.
Beste behin mundura
etorriko balitz bezala.
Bazter guztiak ibili zituen:
Ezagun zituenak eta ezagutzeko
aukerarik izan ez zituenak ere.
Burutazio oro ekarri zituen gogora,
ele bakoitza, bertso-lerro bakoitza,
istorio bakoitza.
Hasperen bakoitza bildu zuen,
malko bakoitza, musu bakoitza.
Izandako dena berreskuratu zuen,
zen guztia, izango zena.
Ez zekien zer egin.
Ez zuen betarik izan;
betiko sentitzen zen, ordea.
Eta orduan jakin zuen:
Aske zen azkenik!

TESTU LABUR-LABURRA

Paul Liz Fuldain

Plentzia, 1998

LABAINKADA

Beti esaten digute
ibaiak nonbait
hasi eta bukatzen direla,
bizitza bat.
Naturan aske, biluz,
leku heze batean irristadak
eramango du ibaia bokalera,
heriotzara.

«Uste baino lotura handiagoa dauka MacGowanek gugaz»

Shane MacGowanen *Gibela* ikuskizuna osatu dute Unai Elorriaga idazle algortarrak eta Gibelurdinek musika-talde uribekostarrak. Ekaitz Larrazabal *Katxo* eta Josu Aurrekoetxea musikariek azalpen batzuk eta misterio gehiago eskaini dizkigute, The Pogues taldeko abeslari mitikoaren bizitzara hurbildu gura gaituen obra horretaz. Bariku honetan Bilboko Kafe Antzokian estreinatuko dute, 21:00etan; eta hurrengoan, hilak 29, Sopelako Kurtzio kultur etxean izango dira, 20:00etan.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA



Barikuan, **Shane MacGowanen *Gibela*** lana ikusgai izango dugu Bilboko Kafe Antzokian. Astebete geroago, Kurtzion. Saio gehiago izango dira?

Ekaitz Larrazabal: Bai, jakina! Leku batzuetan da-borduko asmoa agertu dute eroateko, baina oraindino lotzeke daude: Arrigorriaga, Zumarraga... eta ahal bada leku gehiagotan egin, han egongo gara.

Josu Aurrekoetxea: Orain ikuskizuna ezagutarazten gabilta. Saio bi horien ostean, *bolo* batzuk egiteko asmoa behintzat badaukagu.

Diskoan ikusiko dugu?

E.L.: Ez da disko-formatuan emateko ikuskizuna.

J.A.: Zuzeneko ikuskizuna bat da, eta, momentuz, ez dago grabatzeko ideiarik. Datorrenak ikusiko du, eta ez datorrena... gogoz geratuko da!

E.L.: Beraz, gomendatzen dizuegu, aukera baduzue, Sopelara edo Bilbora joatea.

Zelan sortu da Elorriaga eta zuon arteko elkarlana?

E.L.: Galdera ona; erantzuna ez da hain erraza...

J.A.: Bera hurbildu zitzaigun egun batean, gure musika gustatzen zitzaiola-eta. The Poguesen abeslariaren inguruko miresmen modukoa zeukan; pertsonaiak erakartzen zuen. Etorri zitzaigun ideia, istorio eta proiektu bat egiteko asmoagaz. Guk onartu genuen, eta ordutik lanean gabilta.

Orain dela zenbat izan zen Elorriagaren eskaintza?

J.A.: Etorri zen gugana, orain dela hiru bat urte, bai-

na lehenengo urtean gu musika lantzen egon ginen; gero Gibelurdinen barruan, beste proiektu batzuk eroan ditugu aldi berean: kaleko espektakuluak prestatu ditugu paraleloan. Azkenean, ez gara profesionalak; badugu gure lana, gure bizitza... eta gure erritmoa... hiru urteko lana dago hor.

“ Unai Elorriaga hurbildu zitzaigun, The Pogues-en abeslariaren inguruko proiektu bat egiteko, eta geuk, onartu! ”

E.L.: Sasoi batez egon da hau tiradera batean sartuta. Ideia hor zegoen, baina ez dakit jarraian zenbaterako lana egon den... ez nuke jakingo esaten.

Orain, beste zerbait prestatzen zabilzate batera?

E.L.: Ez. Kontu horregaz nahikoa beharra daukagu!

Zergatik aukeratu zuen Elorriagak MacGowan?

J.A.: Berak erantzuteko galdera da hori, baina pertsonaia berezi bat behintzat bada.

E.L.: Beti izan du gustuko bere musika, bere baladak eta poemak. Apur bat Unai literatura-alorretik dator, eta MacGowanek badauka...

J.A.: Tipoa intelektual bat da, azken finean.

Zuei ere erakargarri egin zaizue?

J.A.: Bai. Musikalki ez dugu Irlandako eta The Poguesen musika jotzen, baina bazen gertuko musika bat. Unai ezagutzen gintuen; herrikoak gara, eta pentsatu zuen: «nire ideia hau egiteko, Gibelurdinek talde aproposa izan leike». Eta apur bat hortik etorri da kontua. Gainera, folk-musika da, eta gu horretan gabilta. Denetik egiten dugunez, azkenean The Poguesen paperean jarri gara, The Poguesenean eta beste askorenean, dena ez baita The Pogues. Espektakuluan berba eta testuak daude, eta atzetik musikatuta dago, ez beti The Poguesen abestiakaz. Beste kantu batzuek ere bai.

MacGowanegaz harremanen bat izan duzue?

J.A.: Oraindino, ez.

E.L.: Proiektua aurrera ateratzea nahiko harremana da, berez.

J.A.: Agian, egunen batean, beragaz elkartuz gero, esango liguke: «Nortzuk zarete? Zer ostia egin duzue? Nire gibelaren gainean zer esaten duzue?».

E.L.: Ondo legoke, bai.

Bere biografian arakatzean, «deskubrimendu harriarri bat» egin duzuela zabaldu duzue. Zeozer aurrera dezakezue?

J.A.: Ez. Deskubrimendu horren jabe egiteko espektakulua bera ikusi beharra dago. Hori da bere muina.



Shane MacGowan



Shane Patrick Lysaght MacGowan kan-tagile, poeta, musikari eta abeslari irlandarra 1957ko Eguberri-egunean jaio zen, Kent konderrian (Ingalaterra). Etorkin irlandarren semea, musika tradizionalaren altzoan hazi zen. Sei urte gaz, Londresera joan zen bizitzera sendiagaz. Sex Pistols-en eraginpean, 1970eko hamarkadaren amaieran The Nipple Erectors banda osatu zuen. Hurrengo hamarkadaren hasieran, ordea, Irlandako musika tradizionala eta punka nahastuko zituen Pogue Mahone (gaelikoz, Pog Mo Thoin; euskaraz, Musuka Ezak Nere Ipurdia) taldea osatu zuen, baina disko-etxeak behartu zien 'The Pogues' jartzen. Taldeak egundoko festazale eta moz korti ospea bereganatu zuen eta *Dirty Old Town*, *Fiesta* edo *Yeah Yeah Yeah Yeah* bezalako abesti mitikoak plazaratu zituen. 1990ean, MacGowan desintoxikazio-zentrotan sarrarazi zuten eta The Poguesek aurrera egin zuen bera barik. Urte batzuk The Popes talde berriagaz jo ostean, 2001ean bueltatu zen The Poguesera, 2014ra arte. 2001ean ere bere biografia idatzi zuen: *Trago bat Shane MacGowanekin*.

E.L.: Euskal Herriagaz harreman berezia duela.

J.A.: Uste dugun baino lotura askoz handiagoa dauka MacGowanek gugaz, Euskal Herriagaz. Hor utziko dugu; deskubrimendua hortik doa: zer lotura duen, zergatik bera, zergatik Euskal Herria, zer daukagu guk komunean tipo moz kor horregaz?

Musikaren oinarria The Poguesen kanta izanda, aukera izango dugu *Birmingham Six* bezalako zentsuratutako abestiak entzuteko?

J.A.: Ez, ez gara sartu gai horretan. Hartu ditugu The Poguesen gogoko genituen abesti batzuk, eta beste abesti asko ez dira eurenak. Historia bati laguntzeko soinu-banda da. Pertsonaia The Poguesen abeslaria da, eta asko dira euren kanta, baina askotarikoa da.

Zein abesti entzungo ditugu?

J.A.: The Poguesenak, *Dirty Old Town* klasikoa, *Fiesta*, eta abar; eta haienak ez diren bals batzuk ere bai.

MacGowanen The Popes taldearen baten bat?

J.A.: Ez, ez dut uste. Gero, Irlandatik kanpoko musika ere ager daiteke, beste herrialde batekoa.

Besterik jakiteko ikuskizunera joan beharra dago?

J.A.: Bai. Zuzenean ikusteko espektakulua da.

Musika aldetik, zaila izan da hainbat kantaren bertsioak egitea? Batez ere The Poguesekoen kasuan, ikusita zuek lau zaretela eta haiek zortzi zirela?

E.L.: Badauka bere zailtasuna, eta sonoritate-aldeetik ez gabiltza imitatzen. Hori ez zen gure asmoa.

J.A.: Gainera, instrumentuak aldatuko ditugu, zeozer berria egiteko. *Katxo* bera perkusio-mota berri bategaz dabil; ni ere banabil beste instrumentu batzuekaz, Gibelurdinek taldeagaz orain arte ez nitue-

“ Agian, egunen batean, beragaz elkartuz gero, esango liguke: Nortzuk zarete? Zer ostia egin duzue? Nire gibelaz zer diozue? ”

nak jotzen. The Poguesen abestiak imitatzeke zailtasunak baino, gure berregituraketak ekarri digu lana.

Zuk, Josu, zeharkako txirula irlandarraz jo duzu.

J.A.: Bai, *Irish flute*. Duela gutxi aldatu naiz instrumentu horretara, eta eguaztenetan jotzen nabil jende bategaz. Musika irlandarrean instrumentu enblematikoetako bat da hori, eta aukera polita iruditzen zitzaidan sartzeko. Uste dut ekarpena egiten duela. Kostatu zaigu; bere lana dauka. Putza, kabroia da. Baina gustura ibili naiz saltsan; gauza berria da. Orain erreta gabiltza hainbeste entsegugatik, baina orokorrean pozik gaude; esperimientua da guretzat.

Eta zure kasuan, Ekaitz, zelan aldaketa?

E.L.: Bateria gaitzagoa da; orain arte kajoiagaz ibili naiz. Sinpleki egiten ahaleginduko gara.

Oholtzatik ala Gibel-gerrillan? Zein gurago duzue?

J.A.: Kalea da gehiago gure lurraldea.

E.L.: Plazaren arabera, baina gehiago gara kalekoak; hala jaio ginen, kale-musikari, eta errazagoa egiten zaigu, beroagoa eta hurbilagoa. Agertokia urrunagoa da eta landu beste modu batera landu beharrekoa.

Taldea 2010ean sortu zenuten. Zelan zaudete?

J.A.: Gauza asko egin dugu: diskoa, instrumentuen erakusketak, kontzertuak, kale-espektakuluak, oraingo hau, film baten soinu-banda... Ondo-ondo ez dakit zer egiten dugun, baina gauza asko, bai!

E.L.: Sei urte asko dirudi, baina arin pasatzen da, eta gure asmoa da luzaroan ibiltzea, The Dubliners-en antzera: 50 urte barru ea zelan gabiltzan! Proiektu hau amaituta, beste saltsaren batean sartuko gara. Berriztu behar dugu erreperitorioa, barrurako bidaia.

J.A.: Lehenengo urteak pasatuta, taldeak berak eta guk beste heldutasun bat eskatzen dugu, gauzak beste era batera egitea. Eboluzioa da. Honegaz ea zer gertatzen den. Etorkizuna zalantzakoa da.

HIRUKAKo irakurleei mezuren bat?

E.L.: Irakurzaleak badira, eta euskara eta kultura maite badute, aukera ezin hobea da gure ikuskizuna ikustea, hiru elementu horiek batzen direlako. ◀

Koldo Serra getxoztarraren *Gernika* filma aurkeztuko dute Malagan



George Steer (1909-1945) erreportari britainiarren kronikan oinarritu da Koldo Serra. ZINEA.EUS

Martitzenean, apirilak 26, 79 urte beteko dira Gernika bonbardatu zutenetik; egun berean, gertaera horretan oinarritutako pelikula plazaratuko dute.

Apirilaren 22tik maiatzaren 1era egingo da Malagako Zinema Jaialdia, eta bertan ikusiko du argia Koldo Serraren *Gernika* pelikulak. Film luzeen sail ofizialean lehiatuko da beste 14 lanegaz batera; barbarako, Ander Duque zinemagile bilbotarraren *Zoe* filmagaz, eta Isaki Lacuesta eta Isa Cam-

poren *La propera pell* lanagaz. Horrez gainera, Helena Taberna zinemagile nafarraren *Acantilado* drama ikusteko aukera egongo da lehiaketatik kanpo.

Condor legio alemaniarrek eta Italiako Aviazione Legionariako hegazkinek 1937ko apirilaren 26an egindako bonbardaketan girotutako drama erromantikoa da *Gernika* filma. Maria

Valverde da zinemagile getxoztarraren laneko pertsonaia nagusia, eta beragaz batera pantailan ikusiko ditugu aktore ezagunak: Barbara Goenaga, James D'Arcy, Jack Davenport, Ingrid Garcia-Jonsson, Burn Gorman, Irene Escolar eta beste hainbat. Gidoilari ibili dira, berriz, Barney Cohen eta Carlos Clavijo.

Grabazio-lanak

Filma 2015eko udan grabatu zuten Artziniega, Barakaldo eta Bilbon. Bonbardaketa, aldiz, Lekeition grabatu zuten, Santo Domingo, Arranegi eta Ezpeleta kaleetan. Lekeitiok garai hartako Gernikagaz daukan antzekotasunagatik jo zuten bertara.

Erasoan lan egin zuten kazetari biren arteko harremana azalduko du Euskal Herrian egindako urteko produkzio handienetako horrek. Teresa (Maria Valverde) Errepublikako gobernuarentzat lan egiten duen zentsuratzaila da, eta ez da bat etorriko Henry (James D'Arcy) berriemaile estatubatuarraz. Produkzio-lan neketua izan du filmak: hamabi bat aktore nagusi eta horiei batutako figurante asko, 60 laguneko talde teknikoa eta sei milioi euroko aurrekontua. Banatzailea Sony Pictures da. ◀

Aikok estreinatutako *Jotamentala* lana ikusgai egongo da hilaren 22an, Sopelan

Uribe Kostako Berbalagun egitasmoak antolatuta, *Jotamentala* dokumentala ikusi ahal izango da bariku honetan, apirilak 22, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Emanaldia 19:00etan izango da; sarrera, doan. Gonbidapenak Kurtzion edo helbide elektronikoz (ukberbalagun@gmail.com) izen-abizenak bidalita eskatu beharko dira. Euskaraz eta gaztelaniaz egindako film dokumentala Aiko taldeak eta Biodeografik ekoiztetxeak sortu dute. 50 minutuan, jotaren inguruko ibilaldi zorrotza egiten du, dantza tradizional horren jatorritik hasi, bilakaeratik eta aldaeretatik igaro, eta gaur egungo egoera eta aurreikusten zaion etorkizuna azalduko ditu.

Euskal Herriko dantza tradizionalak berreskuratzeko lanean duen esperientzia luzean oinarrituta, Aiko taldeak dantza herrikoi ezagunenetakoa eta klasikoenetakoa, jota ezaguna, irudien bitartez omentzea erabaki du. Gainera, dokumentalak aditu askoren testigantzak eskaintzen ditu, horien artean aipa daitezke Cesc Gelabert edo Jon Maya dantzari eta koreografoena zein Juan Antonio Urbeltz, Jon Pertika, Iñaki Irigoyen edo Jose Inazio Ansorena folklореaren ikerlariena, beste askoren artean. ◀

Harkaitz Cano idazleak Sopelako Irakurzaleen Klubean parte hartuko du, apirilaren 21ean

Sopelako Euskarazko Irakurle Klubaren hurrengo saioa egunean, apirilak 21, izango da. 19:00etatik 20:30era elkartuko dira, Sopelako Kurtzio kultur etxean; sarrera, doan. Oraingo honetan, Harkaitz Cano Jauregi idazle eta itzultzaile lasartearra gonbidatu dute, *Beti oporretan* (2015, Susa) bere azkenengo liburuaz berba egin dezan. Aipatutako lana hamalau kontakizunez osatu du Canok, haietako asko uda garaian idatzitakoak. Hartara, opor legez uler daitekeenari bertsio desberdinak erantsi dizkio; ura eta itsasoa bezalako errekurtoetara jotzen badu ere, ohiko oporrez harago doazen egoerak daude: espetxea, barbarako.

Idazleak mota guztietako lanak sortu ditu: ipuinak, eleberria, poesia, kronikak, haur eta gazte literatura, baita itzulpenak ere; azken alor horretan, Hanif Kureishi eta Allen Ginsbergen lanak adibidez. New Yorken bola da bat igaro ondoren, hiri hori sarritan agertu da bere liburuetan. ◀

Zapatila gorridun mutikoa antzezlan eskainiko du Ados taldeak, Areetan

Domeka honetan, apirilak 24, *Zapatila gorridun mutikoa* antzezlan eskainiko du Ados taldeak, Areetako Andres Isasi musika-eskolan; sarrerak daborduko salgai daude 5 euroan. Testu bako lana 6 urtetik gorako umei zuzenduta dago. Garbi Losadak idatzi du antzezlan, eta berak zuzentzen du; Javier Asinen jatorrizko musikak eta Bertha Bermudezen koreografiak osatzen dute ikuskizuna.

Antzezlanak proposatzen duen istorioa hauxe da: mutil ei egitea gustatu ohi zaien gauzak egitea gustatzen ez zaion mutikoarena. Berak gurago du loreak batzea, margotzea, sokasaltoan ibiltzea, ganbarako arropa zaharraz mozorrotzea, edo rock & roll izar baten modura abestea. Bizitzan, barre egingo du, sufrituko du, maitatuko du, negar egingo du, amets egingo du... Hala, *Zapatila gorridun mutikoa* lanagaz, aniztasuna gure gizartearen elementu aberasgarritzat ulertzen lagundu gura dute. ◀

Astrabudura heldu da Bizkaiko bertso-lehia



Peru Vidal, lehenengo saioan. © BBE

Zapatu honetan, abenduak 23, Erandiora helduko da 2016ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa; Udabarriko Fasearen hirugarren saioa izango da Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean egingo dena, 17:30etik aurrera. Gainera, eskualdeak ordezkaritza bikaina edukiko du kanporaketa horretan: Aitor Esteban Etxebarria itzubaltzetarra, Arrate Illaro Etxebarria algortarra eta Paule Ixiar Loizaga Legarra sopeloztarra lehiatuko dira, beste hiru bertsolarien kontra. Sarre-rak 3 euroan egongo dira salgai; Ber-

tsozale Elkarteko bazkideek, ordea, 2 euro baino ez dituzte ordaindu behar izango. Azkenik, 16 urte artekoentzat dohainik izango da. Bestalde, laugarren kanporaketa domekan bertan jokatuko dute, Ondarroako Beikozinin; horretan ez da eskualdeko ordezkari-rik egongo. Osterantzean, Erandion ez ezik, Getxon ere egingo dute saioetako bat: fase honetako azkena. Maiatzaren 22an izango da, Algortako Fadura kiroldegian.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako aurreko saioei dagokienez, Bermeoko Kafe Antzokian jokatu zuten apirilaren 17an Udabarriko Faseko bigarrena; Ander Elortegi Garatea gernikarrak irabazi zuen. Dani de Miguel Avecilla algortarra, ordea, azkena izan zen. Sailkapen orokorrari begira, Berrizko lehenengo saioa irabazi ostean, Peru Vidal leioaztarra buru bazen ere, 178,25 puntugaz, Bermeoko saioaren ostean, Ander Elortegi dago lehenengo sailkapen orokorrean, 179,25 puntugaz. ◀



Zale denei domekan Fadurara hurreratzeko deia egin diete jokalariek. © NEW TEAM

Getxoko New Team saskibaloit-taldeak irabazi du Emakumezkoen Bigarren Mailako Senior Liga. Partida bat falta zaie: Getxosaskiren aurkako derbia, domekan.

Liga amaitzeko partida bi falta zitzaizkionean lortu zuen lehengo mailarako hiru txartele-tako bat New Team saskibaloit-taldeak. Partida bat beranduago, pasa den zapatuan, Getxoko Andra Mari ikastetxean jokatzeko emakumezkoek baieztatu zuten liga ere irabaziko dutela, eta ez zuten galdu os-

patzeko aukera. Jokalari taldea «oso harro» dago lortutakoagaz: jokaturako 13 partidetatik ia denetan nagusitu dira, bakar batean huts egin baitzuten. Berrio-Otxoako santutxuarrek 46-43 estu batengatik lortu zuten garaipena euren etxean lotzea. Hala ere, ilusio eta poz handiena eman die «hainbat zailtasunen aurrean» liga

irabazi izanak. «Azkenean lortu dugu hainbeste denbora pasatuta eta guk bakarrik, lan eginez, laguntza barik», Itxaso Fernandez de Mendiola jokalariek dioenez. Taldea sortu zutenetik zortzi urte pasa dira, eta hasieratik bidaia, kamisetak, fitxak, epailetzak, aseguruak eta gastu denak euren poltsikoetatik atera dira, «Udaletik euro bat ere» ez dute jaso: «laguntza eskatu eta ezezkoa jaso dugu», kexatu da hegalekoa. «Orain dela zortzi urte joan ginen udaletxera. Gura genuen talde bat egin gure artean, eta haiek aukera

eman ziguten Getxo taldekoak izateko. Baina guk gura genuen gure taldea osatzea. Getxoko taldekoak egitekotan gure fitxak euren mugitu zitzaizkion hainbat taldeetan. Guk hori ez genuen gura. Hori izan zen Udalak eman zigun aukera bakarra». Diruaz aparte, Getxo markatik kanpo egoteak entrenatzean kalte egin diela diote, Getxo Kirolak erakundeak kantxa-ordutegiak banatzeko «lagunarteko futbol partiden atzetik jarri gaituelako». Derbia domekan jokaturako da, 12:00etan, Faduran, «gure ametssetako kantxan». ◀

Sopelako Igeriketa Saria, aste-akabuan

Sopela Igeriketa Swim elkarteak antolatuta, zapatuan eta domekan jokaturako da Sopelako Udaren Igeriketa Sariaren hamargarren edizioa, Abadesolo kiroldegian, Etxebarri zeharbidean.

Zapatuan, apirilak 23, eskola-mailako neska-mutilak lehiaturako dira, 2003 eta 2007 bitartean jaiotakoak. Era berean, 2008an eta 2009an jaiotakoak gonbidatu dituzte parte hartzen. Probak 17:00etan abiatutako dituzte, eta lehiakideek erlojupekoaren aurka igeri egingo dute. Denera, 13 ariketa izango dira, librean, tximeletan, bularrekoan eta bizkar-igeriketan, 50 eta 100

metroan, gizonezkoentzat, emakumezkoentzat eta mistoan, azken hori erreleboetan.

Domekan, ordea, 2003tik ondoren jaiotako federatuen txanda izango da. Horiek igerilari osoak direla erakutsi beharko dute goizeko 10:00etatik aurrera. Horretarako, neskek eta mutilak 50 metroko ariketak egin beharko dituzte ohiko lau modalitateetan: libre, tximeleta, bularrekoan eta bizkar-igeriketa. Era berean, taldekako sailkapenerako ariketa bi izango dira: 4x100 metrokoan, estilo librean, eta 8x50 metrokoan, libreak talde mistoetan. Sarrera doakoa izango da. ◀



Jose Antonio Landa Ugarte Berangoko alkate izan zenari gorazarre egin zioten pasa den apirilaren 11n, Berangoko Kinttopoko zaldi-probetan. Sari nagusia Gamizko Contruccionen Torrontegiri eman zion Anabel Landa Gaubeka omenduaren alabak eta gaurko alkateak. © KIRRU - BIRLE

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus



Txirrindulariak, Akarlandan



Ekainaren 5ean egingo dituzte Mendiko Bizikletaren Bizkaiko txapelketak, Getxon. © UCE

Domeka honetan, apirilak 24, jokatu da Erandioko Udaren XI. Mountain Bike Sari Nagusia, Union Ciclista Erandio txirrindularitza-elkarteak antolatuta. Proba sortu zenetik egin dutenez, aurtan ere Akarlandako parkean egingo da lasterketa. Goizeko 10:30etik aurrera abiatuko da Euskadiko Openeko aurtengo laugarren proba hori.

Zirkuitua «hanka-hausletzat» jo izan da askotan, une batez ere txirrindulariei atsedean hartzen uzten ez dieten gorako eta beherako aldapa handiak dituelako. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, «gogortasuna eta inguru pribilegiatua direla-eta, zirkuitua Euskadiko Openeko onenetarikoa da, edo ikusgarrienetakoa, behinik behin». Zirkuituak sei kilometro ditu, 250 metroko desnibelagaz.

Berari bost bira eman beharko dizkiote elite zein 23 urte azpiko kategorietakoek. Master 30ekoek, ordea, lau aldiz bete beharko dute aipatu ibilbi-

dea. Emakumezkoek, Master 40 eta gazte-kategorietakoek hiru bira eman go dizkiote Akarlandako zirkuituari. Azkenik, kadeteek bira bi besterik ez dituzte emango. Helmugan, kategoria bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuak 13:30etik aurrera agertuko dira sariemanaldirako.

Domekan, Andoni Jimenez Union Ciclista Erandio taldeko txirrindulariari adi jarraitu beharko zaio. Master 40 kategoriatik sailkapen nagusian hirugarren doa Jimenez, 115 puntugaz. Aurretik, Oiartzungo Bike taldeko partaide bi dauzka, 39 eta 45 puntura. Hori ez da izango bertokoek Akarlandan izango duten norgehiagoka bakarra: elite, 23 urte azpiko eta Master 30 kategoriatako taldeetako sailkapenean ere erandioztarrek lehia bizia dute, kasu honetan Enkarterriko txirrindularitza-klubagaz. Orain arteko proben ostean, autrigoiek podiumeko hirugarren postua daukate. UCEkoak puntu bakar batera daude. ◀

Galean jokatu dute Neguriko golf-txapelketa

Pasa den apirilaren 10ean, Galeako golf-zelaian jokatu zen haurren, kimuen eta benjaminen Neguriko golf-txapelketa. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 130 jokalarik parte hartu zuten, Neguriko Golf Errege Elkartek antolatuta. Emakumezko irabazleak honakoak izan ziren: Amalia Amman Neguri taldekoa, haur mailan; Paula Balanzategi donostiarra, kimuetan; eta Irene Amunarriz donostiarra, benjaminetan. Gizonezkoetan, maila horietan nagusitu ziren, hurrenez hurren, Inhar Torres, Goiburu taldekoa; Eneko Moral, Meatzegikoa, eta Miguel Fernandez donostiarra. ◀

Verhoevenek eta Gilek irabazi dute Avilan

Avilako Fontiveros herriak hartu zuen pasa den apirilaren 10ean Espainiako Emakumezko Txirrindularien Koparen bigarren proba. Bertan, Bioracer - Elkar Kirolak taldeko Saioa Gilek irabazi zuen etapa, kadete-mailan. Gilek ihes egindako lasterkari bat gainditu, eta pelotoia atzean metro batzuetara izatea lortu zuen. Talde bereko Sandra Alonsok ez zuen lortu garaipena esprintean, baina eutsi egingo dio Nojako lehenengo proban eskuratu zuen gazte onenaren maillotari. Esprintean, Aurore Verhoeven Lointek taldeko txirrindulari frantsesa nagusitu zuen. ◀



Rafa Iglesiasen omenez, Athleticen eta Eibarren betaranoen partida jokatu zen San Lorentzon pasa den apirilaren 10ean. Bizkaitarrak 4-0 nagusitu zitzaizkien talde armaginekoei. Astrabuduako Futbol Taldeko koordinatzailea pasa den irailean zendu zen. © EMI PHOTO



Galtza motzetan

ANA RAMOS SARRIUGARTE
Kazetaria

Hausnarketa labor bat

Athletic bikain ari da ligan, eta aspaldiko partez balentria lor dezake. Ederra litzateke, oso, txapelketa irabaziko balu. Autokritika apurra egiteko bidea ematen du horrek. Komunikabideon partetik, noski, eta baita gizartearen aldetik ere. Albistegi zein egunkaritan, emakumezkoen kirola elitekoa denean eta titulu baten usainean dabilenean azaltzen da, batik bat. Hein berean, jarraitzaileak eurak dira erronka horien itzalean harmailak betetzen dituztenak. Gabarraren ur handietan sartu gabe, hori guztia aldatzen joateko gure esku dagoena zer den eta nola erabil dezakegun hausnartzeko tenorea izan liteke. ◀

Itñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41
Algorta

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?


SARIA

Medested saio bat

aurpegi-tratamendua:

azala tinkatu eta finkatzeko, zahartzearen ondorioei aurre egiteko... Urdulizko Kumara zentroaren ekimenez.

Apirilaren 27a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak, zein emanaldirako sarrerak gura dituzun eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337



Horoskopoa



Ura

(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Udaberri honetan argi ibil zaitez allergia-kontuakaz. Zure umorearen harribitxiak hazkura eman diezaiekete ingurukoei.



Otsoa

(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Zure laguna ez da lotsatia, ezta totela ere. Zuk ipini duzu urduri, berba egin duen bakoitzean zuzentzeagatik. Utzi adierazten!



Adarra

(Otsailak 19-Martxoak 20)

Aste-akabuetako zure egarria ez da kontu normala. Zer gertatuko litzaizuke Saharan barrena biziko bazina?



Aitzurra

(Martxoak 21-Apirilak 19)

Zugaz serio berbetan egotea koadro abstraktu bat begiratzea bezalakoa izatera hel daiteke: ulertezina!



Hostoa

(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Gogoratzen zara zure lehenengo Kili-Kili eskue-tan hartu zenuen egunaz? Asteotan aukera duzu garai hura berreskuratzeko: jo Bilbora.



Eguzkia

(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Futbolaren inguruan daborduko berba egiteko gutxi geratzen zaizu. Hobe gaia datorren denboraldirako uztea.



Garia

(Ekainak 19-Uztailak 18)

Mahaian Algortako San Nikolas liburutegian baino paper gehiago daukazu. Zelan espero duzu telefono zenbaki hori aurkitzea?



Lastoa

(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Euskararen aldeko egunak datoz segidan. Hasi prestatzen armairua material berrirako, gordetze-ko leku barik lotuko zara, ostantzean.



Iratzea

(Abuztuak 18-Irailak 16)

Ahalegindu zara ordezkioak ikusten, baina ezer ez da lehen bezala. *Goenkale* berriro ipin dezaten sinadura-kanpaina abiatzea ez da txarra.



Meta

(Irailak 17-Urriak 16)

Izenak ez du egiten izana! Eta txandala janzteak ez zaitu bat-batean kirolari bihurtuko. Dena den, inork ez luke sinistuko.



Hazia

(Urriak 17-Azaroak 15)

Ez da une txarra udako planak egiten hasteko: kanpaldi batera joanez gero, hasi bilatzen ea nork duen kanpin-dendaren bat.



Negua

(Azaroak 16-Abenduak 20)

Jantzi dotore, hirira joango baitzara! Zabaldutegiak, ikusgarria izango baita! Eta, behar izanez gero... ez ahaztu audiofonia, kontzertua baita!

Zorion agurrak

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37

5€



GONSO
ALGORTA
Metalzaleon partez

Zorionak, Asier! Urteek abeslari onenen ahotsak urratsen badituzte ere, bizi izandako kontzertuengatik gogoratzen ditugu garairik ederrenak musikazaleok. Metal eraso!!!



MARITXU
ALGORTA
Iruñeko lagun partez

Hilabete ederrak espero dituzu. Beraz, zorion-agur bikoitza maite zaitugunon partez: batetik, zure haundunaldiagatik; eta bestetik, zure urtebetetzeagatik. Muxu handiak!!!



RISKO
NEGURI
Kuadrillaren partez

Ohitura onak ez zenituen Madrilan galdu: afari ederra egin eta zintzurra ondo busti beharko ditugu zure urtebetetzea ospatzeko, ezta? Zorionak eta muxu handiak!!!



ITXASO
GALDAKAO
Kuadreren partez

Zorionak, Iturrate!!! Primeran estreina itzazu hogeita guztiak! Urte bat baino ez amama klubean sartzeko, tik-tak tik-tak... kar-kar-kar. Asteburuan ederto ospatuko dugu, muxu potolooaaa!!!

Zu eta biok, hirukan, bultzada bera!



Gure lana, Zure ekarpenak,
Denon babesa eta parte-hartzea,
Bultzada ekonomikoa ere bai!

Urtean
35€
baino ez

hiruka.eus/harpidetza/laguna/
944 911 337
hirukakoop@hiruka.eus

hiruka zaitez!



Trukean: zozketak, sariak, astekaria eguaztenero...



Zuri-beltzeko argazkiak liburu honetatik hartuak:
© ENTRE LA LIBERTAD Y LA REVOLUCIÓN 1930-1935.
JOSE ANTONIO DE AGIRRE Y LEKUBE



Libre erabakitze

Getxo, Mundaka, Bermeo eta Elorrioko alkateek bultzaturiko adierazpen agian ez oso ezagun batek 85 urte bete ditu. Hori gogora ekarriz, *Getxo, erabakiaren plaza* aurkeztu du Getxoko Gure Esku Dago ekimenak.

IÑAKI FRIERA URBISTONDO

Apilaren 17an 85 urte bete dituen adierazpen haren urteurrena baliatu du Getxoko Gure Esku Dago ekimenak aurtengo ekainaren 5ean aurkeztuko duen *Erabakiaren adierazpenari* buruzko kanpainari heltzeko, *Getxo, erabakiaren plaza* goiburuagaz egingo duena. Orain ere, orduan bezala, «erabaki libre eta demokratikoa» hartzeko eskubidea aldarrikatu gura du Gure Esku Dago-k.

Gogora ekarri nahi ditu, aipatu dinamikaren ekimenaren harira, joan den mendeko hogeita hamarreko hamarkadan Bizkaiko udalerrietan bizi izandako giroa eta, «...herriek beren burua determinazio librean gobernatzeko duten eskubide natural eta ezin kenduzkoaren arabera» –hala jaso zen adierazpen hartan–, alkate hautatu berriek irmotasunez eta konstantziaz sinatutako dokumentua.

Artegatasun handiko egunak izan ziren 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundearen ondorengoak. Nahiz eta zinegotzi gehienak Monarkiaren aldekoak izan, Errepublikaren aldekoak hiri nagusietan iraba-

zi zuten. Zurrumurruak zebiltzan etengabe: Alfonso XIII.aren Monarkiarenak egina zuela eta herritarrek,

Getxok euskarri izan behar zuen beharrezkotzat jotzen zen edozein mugimendutan

kantuka eta oihuka, Errepublika goratzen zuten kalerik kale.


Bilboko Areatzan jendetza pilatu zen apirilaren 14ko arratsaldean, udaletxerantz. *Euzkadi* egunkariaren zuzendariaren bulegoan zegoen Jose Antonio Agirre, haren lagun Leizaola, Kareaga eta Azkuerekin. Egundetako egoeraz ari zirela, getxoztarrek aukeratutako udalbatza berehala biltzeko beharra azaldu zioten Getxoko alkate eta lehendakari izan zenari (EAJk 16 zinegotzi lortu zituen, 21etik), «Getxok eus-

karri izan behar zuen-eta, beharrezkotzat jotzen zen edozein mugimendutan». Horrela kontatzen du Agirrek berak *Entre la libertad y la revolución* liburuan.

Aurreko egunean, apirilak 13, II. Errepublika aldarrikatu zuten Eibarren. Ez dago argi zergatik aurreratu zen: batzuek diotenez, gaizki-ulertu bat izan zen –mezulariak «*se está preparando la República*» (Errepublika prestatzen ari dira) esan ei zuten, eta alkateak, Juan de los Toyosek, «*se está proclamando la República*» ulertu (Errepublika aldarrikatzen ari dira)–; beste batzuen arabera, arrain garraiolariak azkar eraman zuten albistea Eibarrera eta hark abiarazi zuen aldarrikapena; azkenik, bertsio dokumentatuago baten arabera, eibartarren ausardia eta demokrazia nahia izan zen aurreratzearen arrazoi bakarra.

Getxon, aldiz, apirilaren 14ko arratsaldean egin zen aldarrikapena, Agirrek deialdia egin eta ordu erdira, bilkura aretoa leporaino. Laburra izan zen bilerak, baina erabaki garrantzitsuak hartu ziren: Euskal Errepublika aldarrikatu, Espainiako Errepublikarekin federatua, 1839ko abolizio legea indargabetzea eta lehengo erakunde subiranoak berriz eratzea eskatu eta gainerako udalei gauza bera egitea galdegin zitzaien. Hala egin zuten Bizkaiko udal gehienetan.

Indar hura ikusita, ekimena herrialde osora zabaltzea erabaki zuten: Gernikara deitu zituzten Bizkaiko udal hautetsiak, batzar nagusi historikoak, aurreko mendean Espainiako Monarkia konstituzionalak za-



eskubidearen defentsan, atzo eta gaur

palduak, berrezartzea eta egun haietako herri borondate politiko berria adieraztea zen helburua.

Berehala antolatu zen dena, herri osoaren mobilizazioa izan zen. Garai bateko deiadarren edo suen orde, 10 autok eraman zuten batzarretarako deia herriz herri Bizkaian. Deialdi publikoa izan zen, ezer ezkutu gabea, hautetsien ideologia zein zen begiratu gabe guztiei egin. Udal gehien-gehienak joan ziren Gernikara, hain ziren garrantzitsuak bizitzen ari ziren une haiek. Baina ezin izan zuten batzarra egin.

Madrileko Gobernuak, ekitaldiaren helburuak kezkatuta, militarrek bidali zituen Gernikara: bederatzi kamioi heldu ziren Gasteiztik apirilaren 17an, eta beste sei autobus Bilboko garnizoitik; Guardia Zibilak sarrera guztiak hartu zituen, eta, hura gutxi bazen, infanteriako soldaduak, metrailadorea eta guzti, hiribilduaren leku estrategikoetan kokatu ziren.

Ehunka auto eta autobus gelditu ziren bidean, Gernikan sartzea debekatuta, ekitaldiaren antolatzailerik zer erabakiko zain. Eta itzultzea erabaki zuten, atzera egitea: Bizkaiko batzar nagusia bakean egin behar zen, ezinbestean.

Oztopoak oztopo, udalek Gernikan onartu nahi zuten adierazpenak babes handia lortu zuen; errepidean bertan sinatu zuten testua. «Gernikako Arbolaren azpian batzar nagusia bilduta» biltzerik izan ez zuten udal ahaldunek, «Espainiako Monarkiaren legeek suntsituriko askatasuna berreskuratuta», Eus-

kal Errepublika onartzea aldarrikatu zuten, zeinean «Bizkaia sartuko baitzen»; era berean, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako ordezkariak eskatu zieten «antzeko adierazpen eta atxikipena» aldarrikatzeko, «Euskal Errepublika edo gure nazioa libreki ordezkatzeko duen organismoa osatzeko».

Hautetsiek, bizikidetzaz zibilizatu, baketsu, demokratiko eta aurrerakoi bat helburu, gobernu propioan eta Iberiar Penintsulako gainerako estatuekin federatuta, etorkizuneko oinarriak ezarri zituzten

**Orduan zein gaur,
ez zen/da
eztabaidatzeko garaia,
egitekoa baizik**

adierazpenean: berdintasuna, ordena juridiko eta soziala, tradizioa eta aurrerakuntza –biak uztartuta–, elkartasuna, familia, jabego pribatua –botere publikoaren esku-hartze osagarriak lagundua– eta ongizaterik handiena.

Amaitzeko, sei ondorio onetsi zituzten: Espainiako Errepublika aitortzea herritarrek apirilaren 12an erakutsitako borondate zilegizkoaren adierazpen gisa; Bizkaiko udalerriek Espainiako Errepublika federalari lotutako Euskal Gobernu errepublikano bat

sortzeko gogoa; hartarako, autodeterminazio printzipioarekiko errespetua galdegitea; Bizkaiko ahalduen adierazpena onestea; udalerrien izenean gestora bat izendatzea aurrekoak betetze aldera, eta telegrama bana igortzea Alcalá Zamorari, indarrean zegoen presidenteari, eta Maciá jaunari.

«Entusiasmo handiko egunak izan ei ziren», esan digu Getxoko Gure Esku Dago-k, «denbora tarte labur hartako gorabeherak herria astindu eta esnarazi zuten eta hura sinatu zuten alkateek ez zuten atsedenik hartu eta buru-belarri jardun zuten euskal estatutu baten alde lanean». Antzeko gogoia ikusten du orain herritarren ekimenak –Euskal Herrian erabakitze eskubidearen aldeko galdeketa eta adierazpenak ugaritzen eta indartzen ari diren honetan– eta gogo haren harira ari dira ekainaren 5eko Erabakiaren adierazpena prestatzen, «ideologia eta jatorri ezberdineko pertsonen eta kolektiboen artean».

Garai hartako izpiritua, aldeak alde, dute gogoan: Getxoko alkate eta lehendakari izan zenak, apirilaren 18an, udaletxeko alkatetzan zegoela, Marcelino de Orexa lagunaren bisita izan zuen. Poza agertu zion De Orexa Agirreri eta, beldurra eta kezka azalduta, harekin kontatzeko esan zion, «ez zen-eta eztabaidatzeko garaia, egitekoa baizik». Azken esaldi hura azpimarratu digu Erabakitze eskubidearen aldeko ekimenak, «Ez da eztabaidatzeko garaia, egitekoa baizik». ◀

Sukaldean

Sasoi-sasoian, alkatxofa eta bakailaoa pil-pilean



OSAGAIK:

Alkatxofa edo orburua, zainzuri berdea, bakailaoa, pil-pil saltsa, berakatza, perrexila, ogi frijitua eta kalabazina.

MOTA GANE TXAKOLINDEGIA

Leioa-Unbe errepidea, 34. Akarlanda Parkea (Erandio)
Tel.: 944 670 007
www.txakolimotagane.com

Sasoikoak eta bertakoak diren produktuak ez gindako mokaduren bat edo beste jaten duten bitartean, txakolina maite dutenek ardo mota hori gozatzeko egundoko lekua dute eskualdean: Mota Gane Txakolindegia. Eta Bizkaiko Txakolina gustuko dutenak are gehiago maiteminduko dira gune horregaz, Erandioko taberna hori txakolinaren sor-markan aditua delako, eta eskaintza zabal-zabala eskaintzen duelako egunero, Akarlandako zuhaitzen gerizpean, giro euskaldun hobeezinean.

Udaberriko giro leunean murgilduta gaudela, Mota Ganera joan gara, sasoioko produktuak ez gindako mokadu sana bezain gozoa dastatzera: alkatxofa edo orburu egosia, zainzuri berdea plantxan,

kalabazina eta bakailaoa melatua pil-pil saltsagaz bustia, den-dena plater bakar batean! Produktu guztiak inguruko ekoizleek hornitutakoak dira, sasoiak sasoikoak eta mimo handiz prestatutakoak.

Aipatutako pintxo ezin gozoagoa aste osoan dastateke 3,50 euroren truke, edo 5 euroan, Filoxera txakolin beltz bereziagaz. Mota Ganeko arduradunen berbetan, alkatxofaren eta txakolin beltz horren mingostasunak oso ondo ezkontzen dira, bata bestearen zaporea ostendu barik. Izan ere, ohartarazi duenez, gaitza edo zaila izaten da alkatxofagaz prestatutako mokadu bat ondo jantziko duen ardo bat aukeratzea; ezkontza ona izateko, ardoak mingotsa izan behar du, halabeharrez. ◀

faceguk



Ezagutzen duzu bertoko euskara?

JON EZKURRA IURREBASO

BILBO



Azaletik bai, mendebaldeko euskararen barruan dagoela badakit. Jende gutxi gelditzen da benetan etxetik ikasi duena, eta nik uste dut polita dela; gustatzen zait.

TERE PORTUGAL BERMEOSOLO

BERANGO



Entzunda daukat, bai. Baina adinekoek erabiltzen dute orokorrean bertoko euskalkia; hemengo jendeak, orokorrean, batura jotzen du, gazteek batez ere.

UXUNE IRIONDO URBISTAZU

GETXO



Ezagutzen dut hemengo euskalkia erabiltzen duen jendea. Nire ustez soinu polita dauka; nire familia gipuzkoarra da; beraz, diferentea iruditzen zait, berezia.

ANDER HERRANZ URIBARRI

BERANGO



Nik ez dakit erabiltzen, baina baten batek badakit erabiltzen duela. Hala ere, aitortu behar dut ez dakidala oso ondo desberdintzen bertoko euskalkia bizkaieratik.

GARAZI BASTERRETXEA BAREA

ITZUBALTZETA/ROMO



Batez ere jende zaharra entzun dut bertoko euskalkia erabiltzen; adibidez, lagun baten amamak erabiltzen duela badakit, baina nik ez dut ezagutzen.

Dastaketa fitxa

TXAKOLINA: Filoxera.

UPELTEGIA: Gure Ahaleginak, Maisu Txakolina.

MAHATSAK: % 100 Hondarrabi beltza. Txakolin beltza, berezia eta ezberdina, Orduñako klimatologiari esker.

DASTAKETA: Kolore gorri iluna, kapa altu, eta fruta gorri heldu usainduna. Bioleta puntu orekatua, ahoan garraztasun neurriduna eta mingostasun orekatua, polita. Usainean espeziaduna, eta amaiera luzaduna.

Txakolin beltz honek lehenengo sariak jaso zituen Gernikako azokan eta Bilboko San Tomas Egunean.



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua